

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

Morean planto / 2-6



Kontzejuek biztanleriari eusten diote; 16 herrietan 1.383 sakandar bizi dira / 7

Altsasuko auzian Guardia Civilarekin erlazioa duen epaile bat izanen da epaiketan / 10

Irurtzango Udalak hainbat inbertsio jasotzen dituen 1.939.171 euroko aurrekontua du / 9

June Kintana Larraza bakaikuarra Espainiako disko jaurtizaile txapelduna / 18

Gaur Ez: rock gordinaren eta melodikoaren arteko doinuak dituen diskoarekin bueltan / 23



ATE IREKIAK
UNIBERTSITATE GRADUAK

Proiektuetan oinarritutako metodologiaren bidez, ezinezkoak ziruditen lanak gauzatu ditugu.

Laura Arpe Valle
Bergara. Mekanikako Ingeniaritza, 4. maila

GOIERRI

MARTXOAK 17

LARUNBATA, 10:30
Areto Nagusia

ETORREKO ZARAKA MARAZI
902 110 436
www.mondragon.edu/prest



Arranomendia, 2. ORDIZIA tel. 943 88 00 62 / bulegoa@goierrieskola.eus



Gutxi direlako, greba feminista egin ezin izan zuten Aita Barandiaraneko langileek babes handia jaso zuten.

SAKANA

Emakumezkoen lanuzte jendetsuak egin zituzten joan den urtean Hego Amerikan, indarkeria matxistaren kontrako *Ni una menos* kanpainaren barruan. Ideiak harrera ona izan zuen nazioarteko mugimendu feministan eta makina bat herraldeetakoak protesta modu horri lotu zaizkio. Horregatik, gaur greba feministaren biharuna da.

*Emakumeok*planto!* leloekin bat egiten duten lau emakumeekin elkartu gara, zeinek bere esparrutik duen ikuspegi feminista azaltzeko. Haietako bat Isabel Gracia Larraya da, Altsasuko Aita Barandiaran adinduen egoitzan lan egiten duen zaintzailea. Eta atzo ez zuen grebarik egin. "Ezin dugu aitona-amonak zaindu gabe utzi. Plantillan jende gutxi gara eta egoitzan daudenak gure arre-taren premia dute". Jendeak zaintza lanak ez dituela aitoren

Moretik, ikuspegiak

Euskal Herriko mugimendu feministak atzoko mobilizaziora deitu zuenean hainbat ardatz landu nahi izan zituen. Zaintza, lana eta kontsumoa dira horietako hiru. Arlo bakoitzean ari den emakumezko batekin egon gara. Baita ikasle batekin ere

tzen uste du, "soilik tokatzen zaionean".

Graciak gaineratu duenez, zaintza "ez dago pagatuta. Guk egoitzan ikusten dugu ederki pagatzen dutela eta ematen diegun zerbitzua ez dator pagatzen dutenarekin bat". Konponbidea ere eman du: "langile gehiago behar dira. Guri berdin zaigu

gizonezkoak edo emakumezkoak izan. Praktiketara egon da multen bat, bestela ez dugu gizonezkoen izan". Euren feminizatutako lana dela aitortu digu Graciak. "Denak gara pertsonak eta jaiotzetik hil arte zaintza premia dugu. Denek egin ditzakegu gauzak, eta maitasuna eman. Ez dakit zergatik ez dau-

den gizonezkoak zaintza lanetan. Edo ez dute ikasten, edo ez zaie kontratatzen edo arrazoi kulturala da".

Zaintza motak daudela argitu digu: "ordaindua bada lana da, bestela, etxeetan laguntza modukoa da. Azken hori, orokorrean ama edo alaba dira gehien egiten dutenak". Eta zaintzaren egite-

koa etxetik aterata ere lan gisa ez dela hartzen gaztigatu digu.

Zainduak izateko eskubidea denok badugu ere, pertsonen erosahaltenaren arabera zaintza mota bat edo bestea jasotzen dela nabarmendu digu Graciak. "Hala ikusten dugu. Nik adinduen egoitzetara joan ezin duten batzuen berri badut. Zerbitzu oso garestiak dira. Publikoa behar luke. Eta plaza kontzertatu gehiago egon beharko litzateke". Egoitzetara joan ezin duten pertsona horiekin zer gertatzen den jakin nahi izan dugu: "hor gelditzen dira, etxean. Gaizki zainduak. Etxeko emakumezkoen dako karga. Gainera, etxebizitzak ez daude egokituak".

Kapitalismoaren ikuspegi gordinetik begiratuta zaintza egoitzetan ez da ezer ekoizten. "Mantentzea da. Jakina, beste pertsona batzuk ekoizten laguntzen dugu. Argi dago zaintzak dirua ematen duela: botikak, fardelak, garabiak... egiten dituztenak".

 EGOKI VENTANAS PVC LEIHOAK www.ventanasegoki.com	KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA egoki@ventanasegoki.com		 Etxe pasiboetarako egokia	 Beirak lehorrean jarrita
			 Isolamendu nukleo indartsua	 Aparteko azala koloreztatua
948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea				



Atzo eguerdiko emakume lakuntzarren hitzordua. UTZITAKOIA

premiak kontuan hartuko lirake. Dauden pertsonen kopurua, horretarako ratioak daude". Zerbitzu publikoa eta unibertsala beharko duela nabarmendu digu.

Lan mundua

104 langileren artean 7 emakumezko daude Urdaingo Magotiaux enpresako plantan, bulegoetakoak aparte. Haietako bat da Idoia Yaben Marin. Greba feministaren berri eman zutenean lankide guztiek babestu zutela azaldu digu Yabenek. Greba feministaren inguruan informazioa eman zuten, baina enpresan lanketa berezirik egin gabe. Hala, deialdiari segituz, emakumezkoek gelditu zuten eta haiek egin behar zuten lana gizonetakoekin egin zuten Urdaingo lantegian atzo.

Enpresan lan egitea gizonetakoekin kontua zen. "Eta Magotiauxen ere hala izan zen duela 12 urtera arte, plantara emakumezkoak sartu ginen arte". Horren arrazoiaz galdetuta, "pentsatzen dut garai batean lan fisikoagoak, gogorrakoak izan zirela. Zeren berdintasuna nahi dugu, baina ez dugu gizonetakoekin indar bera. Orain tresneria sartu da. Lan gogorra den arren ez da hain fisikoa".

Hain inguru maskulinoan lan egiten "oso ongi" moldatzen direla azaldu digu Yabenek, "berdin-berdin tratatzen gaituzte". Emakumezko batzuk lanpostu batzuetara iristean euren balioa erakusteko "gehiago" egin behar izan dutela aipatu diogu, baina euren kasua ez dela azaldu digu.

isla.

Lan eskubideak bermatuak dituen enpresa batean lan egiten du. "Industrian ez dago halako problemarik, baina beste sektore batzuetan bai. Eta langabezia dauden emakumeek dituzten eskubideez, hobe ez hitz egitea".

Feminismoari lantokietan egiten zaion harreraz galdetuta bere gizonetako lankideek "ez dute ezer berezirik esaten. Nik uste iritsi dela une bat hau guztia normalizatu dena. Gero etxean egiten dutena beste kontu bat da. Gurekiko matxismorik eta halakorik ez dago".

Ikasle greba

Altsasu institutuko ikaslea da Ainhoa Imaz Asensio. Berak azaldu zigun ikasleek zergatik egin zuten bat greba feministarekin. Atzoko deialdia prestatzeko langile batek asanbladara deitzen kartelak jarri zituen eta 27an egin zuten aurreneko bilkura. Herenegun egindako asanbladan, irakasleek eta ikasleek lelo bat aukeratu zuten: *ikastetxe internazionalista, feminista eta antikapitalista eraiki*. Ikasleek beste lelo bat aukeratu zuten: *patriarkatuari su! Feminismoaz hezkuntza eraiki*.

"ZAINZA MOTAK DAUDE: ORDAINDUA BADA LANA DA, BESTELA, ETXEETAN LAGUNTZA DA"

takuntzarik ez jasotzea. Gobernuak eta gizarteak ez dute halakorik eskaintzen. Azkenean, jasotzen dugun hezkuntza patriarkala da. Horri aurre egiteko, egunerokotasunean baita ikastetxeetan jasotzen ditugun erasoei aurre egiteko beharrezkoak dira".

Greba feministaren eta ikasleen arteko loturan sakondu du ikasleak: "Oso arrotza zaigun hezkuntza daukagu. Egungo sistema patriarkalaren baloreak inposatzen zaizkigu; matxistak". Testu liburuetan emakumezkoen presentziarik ez dagoela nabarmendu digu. "Haren presentzia ezkututzen da. Adibidez, Batxilergo 2. mailako filosofia ikasgaiaren autore guztiak gizonetakoak dira". Emakumezko filosofoak egon badaudela nabarmendu digu Imazek. "Ezkutatzen digute eta ez digute benetako historia edo emakumeen historia kontatzen".

Imazek ikastetxean ikasleen artean ematen diren botere harremanei eta ikasle-irakasle harremanei erreparatu die ere. "Agerikoa da patriarkalaren espazio gehiena gizonetakoekin hartzen dutela eta emakumezkoak baztertuak izaten direla". Ikasleak "kontuan hartzen ez diren mikro-matxismoak" aipatu ditu.

Greba feministaren ardatzetako bat zen lanari ere erreparatu dio Imazek. "Txikitatik ikasleoi sistemaren balio batzuk ezartzen dizkigute; hezten gaituzte etorkizunean makina hutsak izateko, baldintza prekarioetan eta sumisoak izate-



ko. Horregatik, txikitatik klasetan isilarazten gaituzte eta ez digute hitza hartzen uzten. Gero guk prestakuntza sakona izan behar dugu horri aurre egiteko".

Berak ikastetxe misto batean ikasten badu ere, sexuaren araberako banaketa egiten duten ikastetxeak badaudela gogorazi diogu. "Bai, LOMCEk diru publikoaz lagunduko lituzke". Imazek esan digunez, "argi dago emakumezkoak zapalduta dagoela, ezin da estali. Emakumezkoek espazio bat behar dugu non gure borroka izan den gure ahalduzkoa lortzea". Baina inposatzen zaizkigun balore horietan, sexua banatzea eta bakoitzari bere rola inposatzea, hori nik ez dut onartzen. Hor jarraipen bat ematen da". Halako ikastetxeetan gizonetakoekin eta emakumezkoekin "orain ditugun rola jasoko ditugu. Guk aldarrikatzen duguna da hezkuntza hezkidetzan heztea da, erabateko berdintasunean, azkenean, genero askapena izatea".

Euren hezkuntza eredu ideala "ikasleen ikuspuntutik sortutako hezkuntza eredu da. Ikasleen hitza kontuan hartzen duena". Euskal eskola nazionala aldarrikatu du: "euskalduna, feminista, burujabea, internazionalista eta aldarrikatzen ditugun hamaika borroka islatzen duena". Herri eskola edo unibertsitateen bidez ikasleak norabide horretan pausoak ematen ari direla azaldu digu.

"EMAKUMEAK GARA ZAPALDUTAKOAK ETA AHALDUNTZE HORI GUK BILATU BEHAR DUGU"

Feminismoak ikasleen artean duen osasunaz galdetuta "borroka ikustaraztea" dela esan digu. "Kontzientzia badagoela uste dut. Eguneroko militantiarena, norberaren esku dago". Atzo ikastetxean maskulinitate tailer bat antolatzeako ziren, baina bertan behera gelditu zen. "Antolatzen ari ginenak emakumezkoak ginen. Atera ez izana aipatu digu mutilen batek. Hainbesteko interesa badu, mugitu dadila eta berak antolatu dezala". Ikaskide mutilez: "nik uste batzuk kontzientzia dutela. Azkenean, borroka guztiona da. Baina zapalduta gaudenak emakumeak gara eta ahalduzkoa hori guk bilatu behar dugu, borroka hori aurrera eramateko".

Kontsumo grebaz

Greba feministaren deialdiarekin batera kontsumo greba delu zen ere. Horrek hainbaten harridura sortu zuen. Eta hori zergatik ote den galdetu diogu Edurne Ruiz Iragiri: "heteropatriarkatua eta kapitalismoa estuki lotuta daude. Beraz, kontsumo eta emakume oso lotuta dauden gaiak dira. Deialdi honekin hori azaleratu nahi da". Kontsumo greba deitzeko arrazoi zehatzak azaldu dizkigu Ruizek: "sistema kapitalista honetan produzitzea eta produzitzea jarraitzea da ardatza. Gizartearen beharrak ez ditu kontuan hartzen, adibidez: afektuak, denbora, harremanak, autonomia... Behar ekonomikoak hartzen ditu kontuan, besterik ez. Gauza pila bat daude ekonomiaz eta txanpon batez aparte". Azaldu digunez, "kapitalismoak behar berriak sortzen dizkigu, batzuetan beharrezkoak ez direnak, gehiago produzitzeko."

Horren ondorioz, energia kontsumo handiagoa, zabor gehiago sortzen dugu eta lurraren biogaitasuna agortu dugu. Eta ondorioz, klima aldaketa".

Hala ere, gaztigatu du funtzionatzeko modu horrek pertsona guztiak ez duela berdina jokatzen: "ez da berdina gizarte klasea, jatorria edo generoa. Bada, kigu sistema honetan kaltetuenak, batez ere, emakumezkoa direla". Pobreziak eta arraza txurikoa ez izateak emakumezko horien egoera gehiago okertzen nuela azpimarratu digu.

Sistemak emakumezkoak kaltetzeko moduak zerrendatu dizkigu: "normalean emakumezkoek soldata txikiak duten lanak egiten dituzte. Askotan oso-oso baldintza kaxkarretan: atsedean gutxi, haurdun geldituz gero kaleratzen zaituzte... Eta Inditex moduko multinationalez eta Asiako ehungintza ari bagara, izugarria da". Ruizek ohartarazi du Europar kontsumitzaileen % 90 Asiatik heldu dela. "Baldintza kaxkar horienatik kontsumitu dezakegu halako arropa merkea. Horren atzean zer dagoen begiratu nahi dugu?"

Hala ere, denda txiki batean edo kate handi bateko lokalean erostea desberdindu ditu. Azken horietan, "normalean emakumezkoak zapalduago daude. Asiaraino joan gabe, supermerkatu kate handien, Zara eta halakoen lan baldintzak oso kaxkarrak izaten dira".

Ruizek ziurtatu digunez, erostekak kontsumitzaileen "erabateko erabaki politikoak dira. Sistema aldatu nahi badugu kontsumitzailearen esku, norberaren esku dago aldaketa. Egiten duguna ondorio batzuk ditu". Hala, eguneroko erabaki horiekin eredu aldaketak sustatu edo hura egonkortu egiten dugu. "Beti kate handietara joaten bagara denda txikiak kaltetzen ditugu. Modu batean horri guztiari laguntza ematen diogu".

Deialdiaren balioaz

Lau elkarrizketatuei greba feministarekin zer lortuko den galdetu diegu. Graciak "berdintasuna" nahi du. "Ez dugu gizonzkoek baino gehiago nahi. Bizitzaren aspektu guztietan berdintasuna nahi dut". Jendea-ri zaintzaz "hausnartzeko" eskatu dio, "hortik denak pasako

Egitarauak

Irurtzun

Martxoak 10

- **22:00** Afaria eskolako jangelan. Lorena Arangoaren saioa eta festa.

Martxoak 11

- **18:30** Helduendako berdintasunari buruzko film laburrak, Katti Goikoetxeak eta Maider Zabaletak bideratuta, Pikuxarren.

Uharte Arakil

Martxoak 12

- **18:00** Gure genealogia feministak. Hizlaria: Miren Aranguren.

Arbizu

Martxoak 10

- **19:00** Erradikalak gara, Argi Bidea elkarteak.
- **21:00** Emakumeen afaria.
- **Martxoak 14ra arte**
- **18:30-20:00** Erakusketa udaletxean.

gara. Denok baldintza hobekak nahi ditugu".

Yabeneke uste du atzoko lanuztearekin lortuko dela "gu pixka bat entzutea. Hor gaudela ikustea. Ia heldu den urtean erregularizatuago egiten den eta gehiago ikusten zaigun".

Egun batez erosteari utzita "min pixka bat egin" daitekeela uste du Ruizek. "Baina batez ere hausnarketarako eta hitz egiteko balioko du. Badirudi eztabaida zabaltzen ari dela. Hori ona da".

Imazendako, lehenik eta behin, emakumezkoak kalean egotea, "urtetan estalia egon den borroka azalaraztea" lortu zen atzo. "Munduko emakumezkoak geldituko bagina zer gertatuko litzateke? Beharrezkoak gara. Gizartearen indarra dugu. Indar gehiago hartu behar dugu. Ahalduntze hori borrokatu behar dugu".



Pausoz pauso, eskutik helduta, emakumeek aurrera egin zuten Altsasuko kaleetan barna.



Arbizuko genero mapa. UTZITAKOA



Altsasuko giza katera manifestazioan joan ziren 300 emakumezko ikasle.



Greba feministaren mezua herriko kaleetan zabaldu zuten Uharten. UTZITAKOA




Irurtzunen 400 bat pertsona elkartu ziren plazan. UTZITAKOIA



Adin guztietako emakumeek parte hartu zuten Altsasuko eguerdiko giza katean.



Etxarriko emakumezkoak herriko plazan elkartu eta gero, Altsasuko giza katera joan ziren. UTZITAKOIA





Emakume errefuxiatuak Greziako kanpamentu batean. ARTXIBOA

Emakume errefuxiatuez, hitzez eta irudiz

Sakana Harrera Haranak dokumentala eta hizketaldia antolatu ditu biharko, 19:00etan, Altsasuko Gure Etxea eraikinean. Lau emakumek hartuko dute hitza eta haien bidez errefuxiatutako emakumeen errealitatea ezagutarazi nahi dute

ALTSASU

Bi une historiko desberdin. Bi herrialde desberdin. Bi bizitza paralelo. 15 urterekin haurrak izateari utzi eta errefuxiatu bihurtu ziren bi neskatoren bizitzak kontatzen ditu *La niña bonita* dokumentalak. Nazio Batuen Erakundeko errefuxiatuendako agentziaren, Acnurren, lana da Altsasun ikusteko aukera izan dena.

Baina horren ondoren, Sakana Harrera Harana taldeko ki-deek hizketaldia antolatu dute eta horretarako lau emakumezko gonbidatu dituzte. Batetik, Laura Lecumeri emagina. Norvegiako Adrop in the ocean gobernuz kanpoko erakundea-

rekin (GKE) Atenas ondoko Skaramangas errefuxiatu eremuan eta Zaragozako Sos Dreams GKErekin Idomenin (Grezia) lan egiten du. Bere ahotik ezagutuko dugu Siriako emakumezko errefuxiatu baten esperientzia: gerra, mafien estortsioa, 45 pertsonekin pateran egindako bidaia, bizi izandako bi kanpamentuen baldintzak, indarkeria...

Errefuxiatua hizlari

Hitza hartuko duen beste emakumezkoa Galia Ahmed Salama da. Tindufeko (Algeria) errefuxiatu eremuetan jaio zen eta egun Sakanan bizi da. Berarendako emakumezkoa eta errefuxiatua izatea zer izan den kon-

tatuko du. Sara Igoa sakandarrak, berriz, Greziako hainbat errefuxiatu kanpamentu ezagutzeko aukera izan zuen emakumezkoen zuzendutako proiektu baten bidez eta horren berri emanen du.

Azkenik, Esther Medina Turienzo izanen da. Osasun arloko langilea, Chiosen (Grezia) Itsas Giza Salbamenduan parte hartu zuen. Baita Action from Switzerland elkartearen The Athens centre for women proiektuan ere. Emakumezko errefuxiatuek bizi duten segurtasun falta, jazarpena, abusua, sexu trafikoa eta bestelakoak izanen ditu hizpide. “Aurrera egiteko askotan prezio garestiegia ordaintzen dute”.

GUTUNA

M-8: Emakumeak eta kartzela

**MIKEL MUNDIÑANO LARRAZA
SARE HERRITARRAREN IZENEAN**

Martxoaren 8aren baitan, Sare Herriarrak preso diren emakumeak izan nahi ditu hizpide.

Emakume izate hutsagatik eskubide urraketa handiagoa da beraien kasuan, eta zenbait egoerek berresten dute hori. Espetxeak gizonetzkoen ikuspuntutik eraikita daude eta bertako egunerokoak modu zuzenean eragiten die: espazioaren antolaketa, egiten diren tailerren izaera, janzteko dauden arauak...

Duela hilabete batzuk ezagutu genuen Granadako espetxeak emakume presoek espetxe zuzendaritzaren partetik jasaten duten jarrera matxistaren adibide garbia, izan ere gizonen kasuan espetxe berean ez da halakorik gertatzen. Garbiketa lanak egitera behartuak dira eta uko egiten badiote isolamenduarekin zigortzen dituzte.

Emakume presoak hiru kartzela motatan sakabanatuta daude: gizonendako kartzelen barruan egokitutako modulu txikietan, gizonetzkoen makro-kartzelen barruan egokitutako kartzela txikietan edota emakumeentzako kartzeletan. Tamalez, gaur egun, hiru baino ez dira emakumeendako kartzelak (Alcalá de Guadaira –

Sevilla-, Brieva – Ávila- eta Alcalá Meco emakumeak -Madril I-).

Errealitate honek baldintzak gogortu egiten ditu, izan ere gune hauek ez diote erantzuten emakume gisa dituzten beharrei. Adibidez, ginekologorik ez dago kartzelan eta gizonendako produktuak soilik daude salgai. Bertako ekonomatoetan, besteak beste, ez dago hain beharrezkoak diren tanpoirik ezta konpresarik. Medikuekiko bisitak izateko ere zailtasunak dituzte. Hau guztia gutxi balitz, espetxeetako politikek emakumea berriz heztea dute xede genero rolaekin lotutako tailer eta arauak ezarriaz. Adibide gehiago: josteko tailerrak, sukaldean aritzeko lantegiak, ile-apaindegiari buruzkoak... emakumei eskaintzen zaizkie.

Emakumearen Nazioarteko egun honetan, bereziki 12 emakume preso bizi duten bakartze egoera salatu nahi dugu. Bete beharreko zigorrak gain, euskal presoek erantzen zaizkien urrutze eta gainontzeko salbuespen neurriez gain, emakume izateagatik ezarritako zigor moralaz ari gara. Egoera honek eragiten dituen gabezia sozial eta psikologikoak mendekuzko politika baten baitan baino ezin dira ulertu.

Emakumezko parlamentarioei aitortza egin die Parlamentuak

1979az geroztik parlamentario izan diren 89 emakumezkoen ordezkari lana nabarmendu da

ALTSASU

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira Nafarroako Parlamentuak Foru Legegileko emakume Parlamentarioen Aitortza Instituzional Ekitaldia antolatu zuen asteartean. Ekitaldiaren

helburua zen “ordezkaritza politikoaren esparruan emakumeen parte hartzea igo dela ikustaraztea da, genero aldetik jarduerak honetako duen joera eta estereotipoak ahaztu gabe”. Hala, 1979. urtetik emakume hautetsi guztiek

egindako lanari “aurpegia eta izena” jartzeaz aparte, ganberako emakumeen ibilbidea “ikusarazi” nahi zen, izan ere, sorrerako Legegintzaldian (1979/83) emakumeak % 4,28 (70etik 3) besterik ez ziren eta egungoan (2015/19), berriz, %52 (50etik 26). Aitortza jaso zutenen artean bi altsasuar daude: Asun Fernandez de Garaialde Lazkano Sala eta Esther Korres Bengoetxea. Bestetik, Parlamentuan atzo 5 minutuko kontzentrazioa egiten zuten, grebarekin bat eginez.



Parlamentariak omentzeko ekitaldian izan zirenak. NAFARROAKO PARLAMENTUA



Etxarren Egjarreta Ekairako bidetik. ARTXIBOA

Kontzejuen biztanlerian % 0,5eko jaitsiera izan da

16 herrietan 1.383 sakandar bizi ziren, populazioaren % 6,85. Aurreko urtean baino zazpi gutxiago

SAKANAK

Sakanako 16 kontzejuetako (Aizkorbe barne, ez bada ere) populazioak 2016an % 0,65 hazi bazen, hurrengo urtean behera egin zuen eta ibarreko herrietan zazpi pertsona gutxiago bizi ziren 2017ko ilbeltzaren lean. Guztira 1.383 sakandar. Jaitsiera % 0,5ekoa da. Sei kontzejutan igo da populazioa: Unanu (+6), Ihabar (+5), Izurdiaga (+4), Dorrao (+2), Zuhatzu eta Satrustegi (+1). Biztanleria bera mantendu dute Aizkorbek, Urritzolak, Etxarrenek eta Ekaik. Azkenik, beste sei kontzejuk galdu dute popu-

lazioa: Hiriberrik (-12), Lizarragak (-8), Etxeberrik eta Lizarragabengoak (-2) eta Errotzek eta Egjarretak (-1).

Denbora tarte berean, 2016tik 2017ra, Sakanak 70 biztanle galdu zituen, % 0,34ko jaitsiera. Hala, 2017ko ilbeltzaren lean ibarrean 20.185 pertsona bizi ginen Ibarren biztanleria jaitsieraren % 10 kontzejuetan izan zen. Sakanako populazioaren % 6,85 kontzeju diren 16 herri horietan bizi dira. Udal diren gaintzeko 13 herrietan, berriz, 18.802 bizi dira, ibarreko biztanleriaren % 93,15.

Kontzejuetako populazioa Sakanakoarekin alderatuta

Urtea	Sakana		Kontzejuak	
	Biztanl.	%	Biztanleria	%
1999	19104	92,71	1392	7,28
2003	19832	93,17	1353	6,82
2007	20086	93,16	1372	6,83
2011	20776	93,17	1418	6,82
2014	20504	93,27	1381	6,73
2016	20255	93,13	1390	6,86
2017	20185	93,15	1383	6,85

Kontzejuz osatutako udalerrien bilakaera

Urtea / Udalerria	Arakil	Ergoiena
2017	947	399
2016	952	399
2015	955	397
2014	941	400
2011	956	422
2007	907	426
2006	882	437
2003	867	448
1999	879	481
2017-1999 aldea	68	-82
	7,74	-17,05

Biztanleria

UDALERRIA / Kontzejuak	Biztanleria udalerrian	Biztanleria kontzejuan
ARAKIL	947	
Egjarreta		71
Ekai		38
Errotz		71
Etxarren		160
Etxeberri		52
Hiriberri		116
Ihabar		135
Izurdiaga		162
Satrustegi		49
Urritzola		21
Zuhatzu		51
Aizkorbe		21
IRURTZUN	2183	
IRANĖTA	174	
UHARTE ARAKIL	828	
ARRUAZU	101	
LAKUNTZA	1262	
ARBIZU	1119	
ERGOIENA	399	
Dorrao		114
Lizarraga		181
Unanu		104
ETXARRI ARANATZ	2464	
Lizarragabengoa		37
BAKAIKU	345	
ITURMENDI	398	
URDIAN	671	
ALTSASU	7419	
OLATZAGUTIA	1518	
ZIORDIA	357	
GUZTIRA	20185	1383

Arakil ibarreko zuhaitzen eguna bihar ospatuko da

10:30ean Itsasperrin da hitzordua. Aurten ermita inguruan eta Etxarrenek landatuko dira zuhaitzak

ARAKIL

Arakilgo Udalaren Kultura Zerbitzuak zuhaitzen eguna antolatu du biharko. Joan den urtean Izurdiagako futbol zelaiaren ondoan 18 intxaurren landatu bazituzten, aurten hitzordua Itsasperri ermitan da. 10:30ean Igor Lanz eta Miren Bajorekin eskulan tailerren parte hartzeko aukera izanen dute. Hura despedituta, 11:00etan, aitzurrak hartzeko garaia izanen da. Itsasperrin bertan eta Etxarrenek zuhaitzak landatuko dituzte. Baina ez hori bakarrik, haiei



buruko informazioa eta mantenturako irizpideak emanen dituzte. Lana despedituta, zuhaitzen egunean parte hartzen duten guztiendako merezitako otarena izanen da ermitaren inguruan, eguerdian.



ZURE
NEURRIRA
EGINDAKO
BIDAIK

Apaolaza Autobusak
943.72.48.10

info@autobusesapaolaza.com
www.autobusesapaolaza.com

Arbizun zuhaitzaren eguna ospatuko dute igandean

Etzi eguerdian plazan jarri dute hitzordua eta handik San Juan ermitara joanen dira

ARBIZU

Arbizuko Udalak zuhaitzaren eguna antolatu du igandera. Joan den urtean jaiotako haurren zuhaitzak landatzeko helburua du hitzordua. Horretarako eguerdian plazan elkartuko dira

eta handik San Juan ermitara joanen dira. Ermita inguruan zuhaitzak landatu eta talde argakia egingen dute. Hangoak despedituta, Aldabide elkartera joanen dira parte-hartzaileak mokaduren bat jatera.

Ez da Arbizuko Udalak zuhaitzekin lotuta antolatu duen ekimen bakarra. Izan ere, otsailaren 20tik pasa den larunbatera arte udaletzeko batzar aretoan Wangari Maathai ekintzaile keniatarrari buruzko erakusketa izan da ikusgai. Maathai, Basoaren ama deitua, 2004. urtean Nobel saria jaso zuen Gerriko Berdea deituriko elkarteak egindako lanagatik; emakume-elkarte horrek 40 milioi zuhaitz landatu zituen Kenian. Mustutze ekitaldian ikasleak izan ziren.



Joan den urteko Arbizuko Zuhaitzen eguna. ARTXIBOA

Musika eskolarako kantu irakasle bila

Altsasuko Musika eta Dantza Eskolan orain arte hezkuntza araututik kanpo eskaini da kantua. Baina heldu den ikasturtean kantua eskaintza ofizialaren zati izanen da. Horregatik, irakaslea kontratatzeke deialdia egin dute

ALTSASU

Altsasuko Udal Musika eta Dantza eskolak kantu espezialitatea eskainiko du heldu den ikasturteko eskaintza ofizialean. Orain arte kantu eskolak adar ez-ofizialean bakarrik eskaini ditu Altsasuko Udal Musika eta Dantza eskolak. Haietara hizkuntza musikaleko ezagutzarik gabe joan zitezkeen, taldeka eta 16 urtetik aurrerakoei zuzenduta zegoen.

Baina musika eskolako patronatuak kantua adar ofizialera pasatzea erabaki du. Horrek ekarriko du Altsasuko Udal Musika eta Dantza eskolan eskaintzen diren gainontzeko espezia-

litateen pare jarriko dela kantua eta Kontserbatorioan sartzeko aukera emanen duen ikasketa prozesua hasteko aukera izanen dela Altsasun. 2018-2019an Altsasuko Udal Musika eta Dantza eskolan 7 urtetik aurrera kantua ikasteko aukera izanen da.

Hori guztia gauzatzeko, aurretik kantu irakaslea kontratatu behar da eta eskolak deialdia egin berri du. Behin-behineko kontratazioa izanen da, lanaldi osoan edo partzialean, zerbitzua beharren arabera. Interesatuek euren curriculumak hilaren 23ko eguerdira arte aurkeztu dezakete musikaeskola@altsasu.net e-posta helbidera.



Informazioa 948 564 581 telefonoan.

Haurren jolas arriskutsuak trenbidean salatu ditu Adifek

Mutiko talde batek errail gainean txanponak eta bi errailen gainean hodia jarri zuten

ETXARRI ARANATZ

Trenbideen mantenuaz arduratzen den Adif enpresak Etxarri Aranazko Udalarari jakinarazi zionez, "segurtasun azpiegiturerekin lotutako bi gertakari" izan zituzten otsaileko azken asteburuan. Enpresako mantentze laneko langileek trenbide gaineko zubi azpian azterketa egitera joan ziren otsailaren 25ean, igandean, 15:45 aldera. Haiek hara joaten zirenean 10 eta 12 urte arteko mutiko talde batek korrika alde egin zuen.

Zubipera iristean langileek ikusi zuten mutikoek errail baten gainean txanponak eta bi errailen artean metalezko hodi bat jarri zutela. Adifetik gatzigatu dutenez, "haurrak hor jolastea arriskutsua da eta trenen segurtasunean eta erregulartasunean eraginak handiak dira. Gertaerak larriak dira eta sala-



Etxarriko tren geltokia. ARTXIBOA

tu ditugu". Halakoak "haurrendako eta bidaiariendako arriskua" direla jakinarazi dute Adifetik. Horregatik, trenbideen mantenuaz arduratzen den enpresak udalarari eskatu dio halako jokabideen arriskuen berri herriko familiei emateko.

Esataria: Eneida Gaurko gaiak:

- Emakumeen Eguna
- Gaur Ez taldearen disko berriaz
- Lorena Arangoa Zabaletarekin larunbateko esketxaz

Ostiralero 9:30ean
SAIOA Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara



Inbertsioetara milioi erdi bideratuko ditu udalak

Irurtzango Udalak diruzaintzako gerakineko 256.000 euroekin hiru kaleren zoladura berrituko du. Aurtengo aurrekontuan beste horren beste diru jaso du hainbat inbertsio egiteko. Aurten udalak 20 pertsona kontratatuko ditu

IRURTZUN

Irurtzango Udalak aurtengo aurrekontua asteartean onartu zuen, 1.939.171 eurokoa. Aitor Larraza Carrerak azaldu digunez, udalak joan zen urtean 1.917.222 euroko gastuak izan zituen eta 2.078.423ko diru sarrerak. Beraz, 161.201 euroko superabita izan zuen. Diru hori, eta aurretik diruzaintzako gerakinean zegoena, lanak egitera bideratuko da. Ardubil kaleko zorua berrituko da (38.000 euro). Bi Ahizpa kalean zorua-ekin batera arkitektura oztopoak kenduko dira (168.000 euro) eta Akaborro industrialdeko hotel ondoko kaleko zorua eta sareak berrituko dira (160.000). Azken horretaz, alkateak esan digu "aspaldi" ez zela industrialdean lanak egiten eta kale horretan karga handiko ibilgailuak ibiltzen zirela eta ondorioz premia zuela, Larrazak argitu digunez, 256.000 euroko lan horiek batera eman nahi dituztela.

Onartutako kontuetan inbertsioetarako % 13,2 bideratzen da, 255.900 euro. Haietako 76.000 euro Atakondoa eskola publikoko fatxada konpondu eta energia eraginkortasuna hobetzeko izanen dira. Bide batez, alkateak azaldu digu eskola handitzeko lanen deialdia garagarzaroan egingen dela. Bestetik, eskolan goi hornidurako argindarra behakora aldatzen duen transformadorea kendu egingen du udalak, "zaharra delako eta hori ez delako bere tokia" eta zuzenean argindar hartunea izanen du eskolak. Lan horiek 7.500 euroko aurrekontua izanen dute.

Udaletxeko eta jubilatutako elkarreko leihok aldatu egingen dira eraikinaren energia eraginkortasuna hobetu, berogailuan gutxiago gastatu eta erabiltzaileak erosoago egoteko. Lanek 31.700 euroko aurrekontua dute. Udaletxe ondoan dagoen haurren jolas parkea handitu egingen da eta horretarako 28.000 euro jarri



Udal kontuek, gainera, parte hartze aurrekontuetarako 35.000 euro dituzte.

ditu. Bestetik, kultur etxean galdara (gasa), musika ekipoa eta argiteria aldatuko dira 27.000 euroko inbertsioa eginez. Bestetik, igerilekuko belardia konpontzeko 12.000 euro bideratu ditu. Lanen deialdia eginga dago eta proposamenak hilaren 23ra arte aurkeztu daitezke.

Orritzek udalarekin hitzarmena zuen eta garai batean udalarena zen pisu bat erabiltzen zuen. Gaur egun bajera bat da. "Pisua larrialdi egoeretan erabiltzeko konpondu nahi dugu. Esaterako, sute bat gertatuko balitz, kaltetutako familiari osatu emateko". Lanak pixkanaka egingen ditu udalak eta aurten leihok aldatuko dizkiote.

Bestetik, joan den urtean bost paperontzi ordezkatu baziren, aurten hamar izanen dira. Hondakinak gaika egoki bereizteko paperontziak dira Irurtzunen jartzen ari direnak. Horretara 5.000 euro bideratuko dira.

Kontratazioak

Guztira 20 kontratu egingen ditu Irurtzango Udalak aurten. Nafar Lansareren bidez 6 pertsona kontratatuko dira, 4 zerbitzu anitzetako zerbitzurako eta 2

garbiketarako. Gizarte Zerbitzuen bidez 5 kontratu izanen dira. Gaztetxokorako beste bi eta igerilekuetan lan egiteko lau. Iturraskarrirako 7.300 euro daude.

Alkateak oposizioeko taldeen "utzikeria" salatu du: "duela hilabete eta erdi eman genien zirriborroa. Ez dute ekarpenik egin. Deitutako batzordera ez ziren joan". Aurrekontua EH Bilduren aldeko 6 botoekin eta UPNren eta independente baten abstentzioekin onartu zen. Azken talde horretako hiru zinegotzi ez ziren bilkuran izan.



Etxarri erdigunea hankaz gora.

Oinezkoendako espazioa irabazteko lanak hasi dira

Etxarri Aranazko udaletxe parean eta Larrañeta kalearen zati batean dagoeneko hasi dira makinak lanean. Egungo galtzadarrria harlosengatik ordezkatu eta eremua oinezkoendako bihurtuko da. Gauza bera egingen da Iturri Ederren inguruan, eta hango aparkalekuak desagerraraziko dira. Lanekin batera, Larrañeta karrikaren trafikoa norabidea aldatu egingen da.

Bakaikuk udalerrri independentista izendatu du bere burua

Bakaikuko Independentistak Sareak proposatuta onartu du udalak udalerrri independentista deklaratzeko. "Euskal Herriak bere etorkizun politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala erabaki dezan burujabetza osoa izan behar duela uste dugu, eta burujabetza osoa gauzatzeko modu eraginkorrena estatu independentea eratzea dela".



Goian, Uharteko alkate berria. ARTXIBOA

Juana Mari Sainz Betelu Uharteko alkate berria

Ainara Aiestaran Ijurkoren lekukoa hartu du, arrazoi pertsonalengatik kargua uztea erabaki baitu

UHARTE ARAKIL

Sainzen eta Aiestaranen arteko arduren aldaketa otsaileko bilkuran egin zen. Sainzek karguan eskarmentua badu, alkatea bajaran izan den hilabeteetan hura ordezkatu baitu. Aiestaranen ordez udalean zein sartuko den oraindik ez dago erabakita. Legegitzaldian udalean izandako bigarren aldaketa da iragarritakoa: Javier Rodriguezen ordez Julen Bergara sartu zen 2016ko azaroaren akaberan. Udala EH Bilduko bost zinegotzik eta UPNko beste bik osatzen dute, nahiz eta erregionalisten aulki bat duela urte bat baino gehiago hutsik dagoen.

asi
arreta eta orientazio
psikologikorako zentrua

Aranxa Sueskun Igoa
PSIKOLOGOA
PSIKOTERAPEUTA
Elkargokide-zk.: N-0806

Urbasa kalea 15, behea
31800 - Altsasu (Nafarroa)
669 367 422

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Astelehenerdik ostiralera
Eguneko menua
9€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

Txooooo!

JUANLUZENA
SAGARDOTEGIA

MAIATZERA ARTE
txotx denboraldia zabalik

ODERITZ
948 604 571 | 680 652 183

Guardia Civilarekin lotura duen epailea

Altsasuko auzian ariko da. Haren inpartzialtasuna zalantzan jarri zuten defentsek eta, horregatik, hura baztertzea eskatu zuten, baina Espainiako Auzitegi Nazionalak ebatzi du eskaera hori lehenago egin behar zutela

ALTSASU

Espainiako Auzitegi Nazionalen Altsasuko auziko epaiketa apirilaren 16an hasi eta 27an bukatuko da. Hiru epaile izanen ditu auziak: Enrique Lopez, Juan Pablo Gonzalez eta Concepcion Espejel. Auzipetutako zortzi gazteen abokatuek epaimahaia zein hiru epailek osatuko zuten otsailaren 13an jakin zuten. Abokatuek martxoaren leian, pasa den ostegunean, aurkeztu zuten Espejel auzitik eta epaiketatik baztertzeko eskaera. Epailea Guardia Civileko koronel batekin ezkondu dagoela nabarmendu zuten, eta, beraz, "agerikoa" dela "lotura psikologiko edo afektibo sendoak" dituela haren bikotekidea kide den erakundearekin. Bestetik, gogoratu dute Guardia Civilaren Meritu Ordenaren domina eman ziola Espainiako Barne Ministerioak Espejeli.

Horregatik, bi guardia zibilak eta haien bikoteen aurkako eraso bat denez epaitu beharrekoa, abokatuek uste dute "lotura" horiek urra dezaketela auzipetuek "epaile inpartzial" bat izateko duten eskubidea. Aldi berean, defentsek gogorarazi zuten Fiskaltzak bere akusazio idatzian esaten duela "Guardia Civilarekiko gorroto sentimendu batek" bultzatuta jardun zutela gazteek, eta horien asmoa zela "guardia zibilak, horien senideen eta lagunak bizi kalitatean modu negatiboan eragitea". Zortzi gazte auzipetuek guztira 375 urteko espetxe zigorrari aurre egin diote: 50na urteko espetxealdia eskatu du seirendako, 62 urtekoa beste batendako eta hamabi urtekoa beste batendako.

Baina epaitegiak defentsen eskaera atzera bota zuen ostiralean. Argudiatu du gauza jakina zela joan den urteko garagarriletik lehen sekzioko presidente izendatu zutela, eta sekzio



Iruñean apirilaren 14an eginen den manifestazioko kartela aurkeztu dute.

MOBILIZAZIO ASTEBURUA DEITU DUTE 16RAKO, APIRILAREN 14RAKO DEIA ZABALTZEKO

horren erabakietan parte hartzen ari zela. Lehen sekzioak sumarioa hartu zuenean eskatu behar omen zen epailea baztertzea, ez orain. Espainiako Auzitegi Nazionalako Zigor Salak ez zuen "lotura" horiei buruzko balorazioirik egin.

Nafarroako bira

#AltsasuMartxan, Nafarroari bira Altsasuko 48 erakundek eta taldek antolatu dute. Haren bidez Nafarroa guztian Altsasuko auziaren berri eman nahi dute. Hiru aldarrikapen zabaldu nahi dituzte martxaren bidez: gertatutakoa ez dela terrorismoa, justizia nahi dutela eta preso dauden gazteendako askatasuna. Bihar hirugarren etapa beteko du birak. 10:15ean suhiltzaileen paretik abiatuko da eta Lekunberritik (11:00), Leitzatik (12:00), Mugairitik (14:30) eta Elizondotik (14:30)

pasako da. Azken herri horretako ekitaldia eta gero autokarabana bitan banatuko da. Batzuk Baigorriko bidea hartuko dute (19:00) eta besteak Berakoa (19:30). Guztietan ekitaldiak eginen dira. Ohi bezala antolatzaileek alde aurretik izena emateko deia egin dute. Horretarako altsasumartxan@gmail.com e-posta erabiltzea eskatu dute.

Gazteak martxarekin bat

Altsasuko gazte talde batek martxarekin bat egin du, Baigorriko gazteek luzatutako gonbidapenarekin bat eginez. Hala, biharko etapan gazteak izanen dira. Euren helburua: "Baigorri eta inguruko jendeari Altsasuko auziaren berri ematea. Gure herrian bizi dugun egoeraren berri eman nahi diegu, haien elkartasuna lortu nahian. Izan ere, gaur egungo egoera sinesgaitz honek herri osoari eragiten baitio. Honen aurrean gure tresnarik handiena elkartasuna da". Bide batez bi herrietako gazteen arteko harremana sustatu nahi dute. Autobusez joan eta Elizondon martxarekin bat eginen dute. Handik Baigorriara joanen dira eta han emanen dute gaua.



Ostegunean, 19:30, udaletxean berriro.

Pentsiodunen kontzentrazio jendetsua Altsasun

150 bat jubilatuta eta pentsiodun kontzentratu ziren ostiralean Altsasuko Zumalakarregi plazan, Hego Euskal Herriko Pentsiodunen Plataformekin bat eginez. Besteak beste, pentsioak %0,25etik gora igo, galdutako erosteko ahalmena berreskuratu eta gutxieneko pentsioa 1.080 eurotara igotzea eskatu dute, Zerbitzu Sozialak berrindartu behar direla exijitzez gain.



Pentsio duinen defentsan. UTZITAKOIA

Irurtzungo azokatik pentsio duinen aldeko deiadarra

Sasoia, jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak deituta 200 bat pertsona elkartu ziren Irurtzunen asteartean. Espainiako Gobernuaren pentsioen % 0,25eko igoera "miseriazkoa" zela salatu eta pentsio duinen aldeko eta haien alde borrokatzeko aldarriak zabaldu zituzten. Hurrengo hitzordua astelehenean jarri dute, 11:00etan, Etxarri Aranazko plazan.

Sunsundegiren inbertsioa, interes foralekoa izendatua

Nafarroako Gobernuak herene-gin egindako bilkuran Sunsundegi enpresa altsasuarrak eginen duen inbertsio bat interes foralekoa izendatu du. Izendapen horrekin foru administrazioak lehentasunezko bultzada eta urgentziakoa ematen die tramitazioan, epeak erdira murriztuz.

Enpresak aurreikusitako inbertsioa 5 milioi eurokoa da. Sunsundegui bi helburu ditu. Alde batetik, Altsasuko lantokiko eraikina hobetzea eta elektrizitate azpiegitura egokitzea. Horretarako beharrezkoak diren lanak eginen ditu. Horrekin enpresaren ekoizpen gaitasuna handituko da, baita ekoizpen eraginkortasuna ere. Gainera, prozesuen eta produktuen kalitateari eraginen dio eta enpresari eta eskualdera ekonomia eta enpresa jarduna erakarriko du, beti ere, Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez. Horrekin batera, 130 lanpostu sortzeko asmoa du.

Euroeskualdearen laguntza Aldakinen proiektu batendako

Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeak Ezagutzaren ekonomiararen arlo Euroeskualde mailako lankidetzak estrategikoak bultzatzeko deialdia egin zuen joan den urtean. Helburua: Euroeskualdearen estrategian zehaztutako giltzarri diren ekonomia sektoreetan oinarritutako lankidetzak garatzea.

Bost proiektu ziren, guztiak hiru lurraldeetakoak eta esparru jakinekoak. Sektore aeroespazialaren eta fabrikazio aurreratuaren kasuan, Euroeskualdeak "Industria aeronautikoko konpositea mekanizatze sistemak robotikoa" delako proiektua aukeratu du. Sektore aeronautikorako konpositezko piezak era garbian, zehatzean eta malguan taxutu eta zulatzea ahalbideratuko duen sistema robotikoa diseinatzea da proiektu horren helburua. Nafarroaren izenean proiektuan Aldakin Automation SL enpresak parte hartuko du, 51.150 euroko diru-laguntza jaso du horretarako.

**ZAINDU MAITE DUZUN HORI...
ZURE ETXEBIZITZA**

25 urte gorako
etxebizitzaren zaharberritzea
Orain laguntza +
%60 arteko dirulaguntzak

Informazioa eskatu

ore

Oficina de
rehabilitación
de viviendas
y edificios

Gazteizbide kalea, Lakuntza

948 464 867
www.etxebizitza.nafarroa.eus



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Eskerri

Munduko emakumeak

ANITZARTEAN zerbitzua

Bihotzez eta zintzotasunarekin

Modu batean edo beste batean

Puntualki, erabatean, ahal guztian

Dantzan, lanean, irrian, penaratuaz

Proposatzen, egiten, erantzuten

Bakarka, taldeka, familiarik

Zurea partekatzean, erakusketan

Gurea ezagutzen, ulertzen

Sakana kolorez blaitzen eta

Zu gabe ANITZARTEAN

Beste 10 urtez ere elkar gozatu

Bidean jarraituko dugun

Betiratu

***Oharra: emakume denak ditugu kontutan**

ANITZARTEAN zerbitzua

Ma
s a k

Anitza

谢谢
Nais tuge
БРАГОДАРИ!
Thank you
Merci
Obrigado

Yoconjal Dieredief P



Erik asko

...kume eder horri

...zuaren X. urte honetan,

...oki MILA ESKER:

...ean parte hartzeagatik.

...urrez-aurre, itzalean...

...elkartasunean, errespetuan...

...ekimenak burutzen...

...n, bikotean, lagun artean...

...sten, bizitzen, gozarazten...

...nartzen, barneratzen...

...ta aniztasunaz edertzen...

...Erik ez lego keelako.

...zatzuz egonen garelakoan,

...eo dugulakoan...

...a arte

...an: hemen agertzen direnak eta 10 urtez

...posible egin duen bakoitza.

ank

**...n
...rtean**

...Pashi Gracias Eni barayé Eske

شكراً
Благодарю вас
Multumesc
Danke
Erik asko





ASTEKOA

ANA ARRAIZA ARTIEDA

Hizkuntza gatazka, botere gatazka

Sakanan *Euskaraldia* ekimenaren aurkezpena egin da; euskaltzaleak aktibatu eta hizkuntza ohituretan eragitea helburu dituen. Euskalgintzak urteak daramatza herritarrak aktibatzen, eragiten eta normalizazioari lekua egiten ekintzen bitartez. Herri mugimenduak akzioa izan du lan ardatza eta akzioaren bitartez erakutsi du bere indarra, akzioaren bidez komunikatu eta eragin du.

2015ean Kontseiluak Anaitasuna kiroldegian antolatu zuen ekitaldi arrakastatsuan, Nafarroan aldaketa euskaratik eman zedin aldarrikatu zen. Euskaraz bizi nahi dugun guztion indarra behar du euskarak. Gure egunerokoan, baita kalean

ere, bide eman behar diogu euskarari.

Gobernu aldaketa izan zen azken hauteskundeetan. Euskararen normalizazioaren bidean urratsak egin dira, seguraski ez desio genuen adina. Urratsak elkarrekin ematen badira eragingarriagoak izan

EUSKARAZ BIZI NAHI DUGUN GUZTION INDARRA BEHAR DU EUSKARAK

daitezkeelakoan nago eta Euskaraldia horren adibide izan daiteke, pertsonen eta entitateen arteko elkarlana.

Baina badut kezka bat guzti honen inguruan... Anaitasun lan zutabe garrantzitsu agertu zituen Kontseiluak euskararen normalizazioa gauzatu ahal izateko: marko juridikoa aldatzearen beharra, plangintza baten beharra, horretarako baliabideak eskainiz eta azkenik herri gogoia. Azken hiru baldintzak betetzen dira Euskaraldia ekimenean, baina 4 zutabeak beharko lirateke euskararen normalizazioari begira. Nafarroan, non bizi garen kontuan hartu gabe, herritar guztioi hizkuntza eskubide berdinak aitortuko dizkion euskararen lege berri bat behar dugu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXE**k eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

ASTEKOA

Palmondo olio, azkeneko eztabaida

IRATXE KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA

Azkeneko hilabeteetan palmondo olioaren erabilerak eztabaida sortu du, batez ere, komunikabideetan. Dieta osasuntsu baterako komenigarria ez bada ere, produktu hau ez da arriskutsua eta elikagai-segurtasun ikuspuntutik ez dago arrazoirik olio hau debekatzeko, Elikagaien Segurtasunaren Espainiako Agentziaren arabera.

Baina, egia da palmondo olioak kolesterola areagotu dezakeela eta arteriosklerosia eta gaixotasun

kardiobaskularrak sustatu. Jatorri begetala du eta ia %50 gantz-azido aseak ditu. Kontsumitzaileek gehiegi ezagutzen ez duten osagarria bada ere, elikagai askotan aurkitzen da.

Europar Batasunaren etiketei buruzko egungo araudiak, 1169/2011 Araudia, argi ezarri zuen "landare-gantzak" adierazpen zehaztugabea saihestu eta olio eta gantzen jatorria zehaztu behar dela. Adierazpen horrek jasotzen duen olioetako bat palmondo olio zen, hain zuzen ere.

Olio hau, kosmetika-produktu eta biodieselean ere erabiltzen dena, prest dauden janari, izozki, saltsa, margarina, gaila, opil, pizza, txokolate edo aperitibo askotan aurki daiteke.

Besteak beste, oso ekonomikoa delako erabiltzen da hainbeste. Prezio honek arrazoi sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak ditu, produktu honen aurka dauden askok agerian jartzen duten moduan.

Kalkuluen arabera, europar biztanle batek kontsumitzen duen oliba-olio litro bakoitzeko, palmondo olio 60 litro kontsumitu ditu. Kontsumo maila hau oso kaltegarria izan daiteke eta epe luzean zirkulazio-arazo eta arazo kardiobaskularrak sor ditzake.

GUTUNA

Ur handitan urpean geratu zirenei

OIER LAKUNTZA IRIGOIEN

ETB1eko "Ur handitan" ikusi ahal izan dugun Wolfram Syndromeari buruzko saioa etxean lasai-lasai berrikusi ostean, urpean geratu zirenak ur azalera ekartzeko beharra sentitzen dut. Saioan parte hartzeko proposamena egin zidatenean, gizartearengana zuzentzeko beharra sentitu nuen. Izan ere, Wolfram sindromea bezalako gaixotasun larri baten aurrean, medikuntzak berak bezainbesteko eragina dauka gertukoengandik jasotzen den babesak. Nik beti esan izan dut

nire gaixotasuna animikoki oso ongi eraman izan dudala. Saioan nahiko argi gelditu zen horretan gurasoek jokatu duten papera. Aldiz, lagunak une askotan itzalean gelditu zirela ohartu naiz. Xabier Madariagak elkarriketa egin zidanean, behin baino gehiagotan Iruñako zein Urdiaingo lagunei eskerrak eman nizkien. Azken batean, beraiei esker beste edozein gazteren moduan aisialdiaz gozatzeko aukera izan dut.

Egindako grabaketa guztiak ikusteko, ordea, hiruzpalau orduko saioa beharko litzateke, eta zoritxarrez, nire eskertza hori ere kanpoan gelditu zen. Banekien nire antzeko egoeran egon zitezkeen bozgorailu izateko aukera neukala, eta hein batean, horrek eraman gintuen gauzak bere gordinan azaltzera, gizartea zentzu

horretan joka dezakeen paperaz jabetzea nahi baikenuen. Egia da azken hiruzpalau urte hauetan une ez hain gozoak pasa ditudala, baina horiek, gure gaixotasunak are gehiago mikazten baditu ere, bizitzaren bilakaerarekin zuzenean lotuta daude. Halaber, eskerrak eman nahi nizkieke tandemean ibiliz eta mendian osteratxo ederrak eginez, urte ez hain gozo hauetan aire freskoa eman didaten lagunei. Nire antzeko egoeran daudenei nik izan dudana suertea izatea opa diet. Gaitzak gaitz, eta mugak muga, guztiok baitugu bizitzaz gozatzeko eskubidea. Eta lagunei zer esan, beste behin ere, eskerrak asko eman izan didazuen guztiagatik, ahal den heinean tarteka zuekin gozatzen eta pasatakoak berbizitzaren segi nahi nuke. Gora zuek!!

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gixane Andueza Golkoetxea
admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:
Maialen Huarte Arano
Zuzentzailea:
Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK

**Erredakzio burua:**Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus**Erredakzioa:**

Maider Betelu Ganboa

krolak@guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso

maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

María Saez de Albeniz Bregaña

publizitatea@guaixe.eus

eta Eneida Carreño Mundiñano

publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.

Foru plaza 23-1.

31800 Altsasu

948 564 275

948 562 107

618 882 675

661 523 245



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Binakakoa: azken txanpa hastera doa

PILOTA Ezkurdiak eta Zabaletak Elezkano II.a eta Rezusta izango dituzte aurkari bihar Labriten eta Atano III.ak eta Martijak Olaizola II.a eta Imaz etzi Atano III.ean. Guztiak finalerdiei ekiteko "gogotsu" daude eta partida "oso gogorak" aurreikusi dituzte

Asteburu honetan Binakako Txapelketako finalerdien lehen-dabiziko jardunaldia jokatu da Labriten eta Atano III.ean. Hortaz, orain arteko hasierako ligaxkan gertatutakoa alde batera utzi, eta 0tik hasiko dira finalerdietara sailkatu diren lau bikoteak: Elezkano II.a-Rezusta, Altuna III.a-Martija, Olaizola II.a-Imaz eta Ezkurdi-Zabaleta. Ikusmina handia da eta salduta daude jokoan dauden bi partidetak sarrera guztiak.

Labriten, partida "oso gogorra" espero dute

Ezkurdiak eta Zabaletak horren ongi doakien Labrit pilotalekuan jokatu dute, Elezkanoren eta Rezustaren kontra. Zaleak alde izango dituzte sakandarrak, baina hori eta gehiago beharko dute finalerdietako lehen puntua lortzeko. Hasierako ligaxkan elkarren kontra aritutako bi partidak Elezkanok eta Rezustak irabazi zituzten; lehenengoan, 6 tantotan utzi zituzten Ezkurdi eta Zabaleta, eta, bigarrenean, aldiz, soilik tanto baten aldearekin irabazi zuten, 22 eta 21.

Asteazkenean material aukeraketa egin zuten bi bikoek, eta partida jokatzeko "gogotsu" daudela onartu zuten. Sekulako loreak bota zizkieten elkarri. "Finalerdiak hasteko gogoz gaude. Optimistak gara eta lehen-dabiziko garaipena lehenbailehen lortu beharra dago" aipatu zuen Zabaletak. Ezkurdiak hasierako ligaxka "sentsazio onekin" despeditu zutela nabarmendu zuen. "Fisiko aldetik eta eskuetatik ongi bukatu genuen. 15 egun hauetan bi entrenamendu gogor egin ditugu eta ongi gaude" gaineratu zuen arbizuarrak. Rezusta izan zuten hizpide sakandarrak. "Sekulako maila ematen du beti. Gu denetarako prest atera beharko gara kantxara, partida oso gogorra izango delako" adierazi zuen Zabaletak.



Rezusta Elezkano eta Ezkurdi eta Zabaleta, material aukeraketan. ASPE

PILOTARI SAKANDARRAK FINALERDIAK HASTEKO GOGOTSU DAUDE

Ezkurdiak, atzelarien jokoak partida baldintzatu ahalko due-la gaineratu zuen. "Beñat atzelari onenetakoa da eta pilotari erregularretakoena. Eta Jose Javier, ongi dagoenean, sekulako figura da eta gozamina da berarekin jokatzeko. Ni pilota txarrak kentzen saiatuko naiz, pilota onak berari uzteko. Bel-durrik gabe sartu beharko naiz jokora. Finalerdietan 3 partidara erabakiko da guztia eta akatsen tarte txikia da" aitortu zuen arbizuarrak.

Bere aldetik, Elezkanok eta Rezustak ustez faborito nagusiak direnaren ideia kendu nahi izan zuten gainera. "Bikote sendoenaren kontra ariko gara. Tanto asko dominatu egingo dituzte euren jokoarekin eta guk gure aukerak probestu beharko ditugu" nabarmendu zuen Danel Elezkanok. Bestalde, Rezustak

15 eguneko atsedena "eskua errekupezeko oso ondo etorri zaiola" onartu zuen. "Zabaleta kolpe gogorrena duen pilotaria da. Oso zaila da beraren kontra jokatzeko eta beti errespetuz jokatzeko dut. Baina onen kontra jokatzeko asko motibatzen nau" aitortu zuen.

Altuna eta Martija, gogoein
Hurrengo egunean, igandean, ikuskizuna Donostian izango da, Atano III.ean. Olaizola II.a eta Imaz izango dituzte aurkari Altuna III.ak eta Martijak. Etxeberriko atzelariak zauritxo bat egin zuen Binakako hasierako ligaxkako azkeneko jardunaldian, besondoan, baina ordutik izan duten atsedenditxo honetan guztiz osatuko zitzaizkion aurrekustan zen. Berdinduta iritsi dira finalerdietara bi bikoak. Hasierako ligaxkako joaneko partidaren 22 eta 20 irabazi zuten Olaizola eta Imazek; aldiz, itzuli partidaren 13 eta 22 gailendu ziren Altuna III.a eta Martija, partida ikusgarrian. Ea igandekoa azken partida horretakoa bezalakoa den.

Ikuskizuna hastera doa eta onena opa diegu gure pilotariei.



J.R. RAMIREZ

Basket Navarrakoak Altsasun

SASKIBALOI Basket Navarrako jokalariek batzuk Altsasun izan ziren, CBASK taldeko harrobikoekin entrenatzeko. Bestalde, gizonezkoen senior mailako I. Maila Autonomikoan CBASK taldeak jarraitzen du lider (31+5), Cendea de Galarri 37 eta 73 irabazi eta gero. Bihar CBASK-ek azkena den Aranguren Mutilbasket hartuko du, 16:45ean, Zelandi kiroldegian.



GUAIXE

Nafarroako Kirol Jokoak aurrera

HERRI KIROLAK Nafarroako Kirol Jokoetan, aurreko igandean bigarren jardunaldia jokatu zen Betelun. Tartean lehiatu ziren Andra Mari eta Iñigo Aritza ikastoletako neska-mutilak, beste hainbat klub eta taldeen kontra. Etzi, igandean, Antsoainen jokatu da Nafarroako Kirol Jokoen 3. jardunaldia, goizeko 10:30etik aurrera.

3 sakandarrek osatu zuten Lilatoia

ATLETISMOA 5.240 emakumek hartu zuten parte Donostiako emakumezkoen lasterketa ezagun eta herrikoian, inoiz baino gehiagok. Altsasuko Lilatoia martxoaren 18an jokatu da eta izena ematea zabalik dago

IGandean jokatu zen 29. Lilatoia, martxoaren 8aren inguruan egiten den emakumezkoen lasterketa herrikoia. *Itzaletik argira* zen aurtengo edizioaren leloa, eta berdintasunaren borroka islatu zuen, beste behin. Aurten inoiz baino parte-hartzerik handiena izan zuen probak, 5.240 emakumezkoena, aurreko urtean baino 439 gehiago, eta Lorea Aiala donostiarra gailendu zen (18:07). 23 emakume sakandarrek osatu zuten proba eta Amaia Aristu olaztiarra izan zen azkarrena (24:03), helmugan 106.a.

Altsasuko Lilasterketa martxoaren 18an

Donostiko lasterketaren errepika Altsasun izango dugu, izan ere martxoaren 18an, 12:00etan, V. Lilasterketa jokatu da, emakumeendako lasterketa ez lehiakorra, Altsasuko Udalak antolatuta.

Korrikan, bizikletan, patinetan, oinez... ahal den bezala proban



Milaka emakumek osatu zuten Lilatoia, giro paregabean. LILATOIA

LILATOIA DESPEDITUTA, MARTXOAREN 18AN LILASTERKETA JOKATUKO DA ALTSASUN

parte hartzea da xedea, emakumeen presentzia egunerokoan, eta baita kirol munduan ere, agerian jartzea. Altsasuko Udalak berdintasuna bulkatzen duen talde bati errekonozimendua egingo dio ekitaldian.

Mina egiten duen porrotaren ondoren, burua altxatzera

ARETO FUTBOLA Osasuna Magnari 2 eta 3 irabazi zion Jaenek partida bukaerako txirrinak jo zuenean

Modu mingarriean galdu zuen Osasuna Magna Xotak Lehen Mailako Areta Futboleko azken jardunaldia. Bina berdinduta zaudenean, Jaenek garaipenaren gola sartu zuen partida despeditzeko segundo bateko ehuneko exkax batzuk falta zirenean. 3 puntu galtzeaz gain, Osasuna Magnak sailkapeneko laugarren postua galdu zuen, hain zuzen ere Jaenek lapurtu ziona.

Eric Martelek sartutako bi golei esker 2 eta 0 aurreratu zen Osasuna Magna, baina Jaenek bina berdintzea lortu zuen. Par-

tida berdinketarekin despedituko zela zirudienean, Jaeneko Boyisek jaurtiketa egin eta partida bukaeraren txirrinak jo zuen, une horretan baloia Xotaren atera sartzan zen bitartean. Zur eta lur geratu ziren guztiak eta arbitroak baliozkotzat jo zuen gol hori.

Modurik krudelenean

“Partida oso irekia izan da, edozeinek irabazi ahal du, baina partidak modurik krudelenean ihes egin digu” zioen Imanol Arregi entrenatzaileak, lur jota.

“Segundu bateko 22 ehuneko. Hori da esan behar dudana bakarra” nabarmendu zuen. Oraindik 7 partida geratzen dira liga bukatzeko eta borrokan jarraitu behar dutela, argi dute Osasuna Magnan. “Jota gaude, baina altxatu beharra dago” azaldu zuen entrenatzaile irurtzundarrak.

Palma Futsal arerio

Lehen mailako liderra Movistar Inter da (56 puntu). Osasuna Magna bosgarrena da (46 puntu), laugarrena den Jaenekin puntutara berdinduta. Gaur Osasuna Magnak Mallorcan jokatu du, 37 punturekin sailkapenean seigarrena den Palma Futsalaren kontra, 20:30ean. Ea hiru puntuak lortu eta laugarren postua berreskuratzeko aukera duten berdeek.

Korrikalari sakandarrek 29. Lilatoian

Lilatoia (5 km)

1. Lorea Aiala (Donostia):	18:07
106. Amaia Aristu (Olaz.):	24:03
390. Ana R. Ganuza (Olaz.):	28:03
391. M ^a Ang. Duran (Olaz.):	28:03
1003. Amaia Checa (Alts.):	31:10
1069. Laura Candelas (Alts.):	31:32
1476. Araceli Mendia (Urd.):	33:14
1479. Francis Irigoien (Urd.):	33:15
1605. Kris Okariz (Arb.):	33:39
1898. Oskia Ollakarizketa (Irur.):	34:25
1901. Uxue Galarza (Irur.):	34:25
2096. Naiara Mundiñano (Etx.):	35:03
2102. Amaia Mundiñ. (Etx.):	35:04
3838. Maitane Txueka (Arb.):	38:52
3841. Iolanda Nabarro (Arb.):	38:52
4288. Jaione Mendinueta (Arb.):	39:55
4294. Amaia Benjumea (Etx.):	39:55
4447. Josune Erauskin (Etx.):	40:23
4539. Ainhoa Urbe (Arb.):	40:33
4890. Nahia Arrese (Etx.):	41:33
4893. Nerea Berastegi (Arb.):	41:33
4895. Irune Ginea (Etx.):	41:33
4897. Itziar Razkin (Arb.):	41:33
4898. Katrin Ginea (Arb.):	41:34

ESKALADA Karakorumeko eskaladaz ariko da Mikel Zabalza

Mikel Zabalza mendizale eta eskalatzailea Olaztira etorriko da bihar, larunbatean, martxoaren 10ean, 19:00etan Olaztiko Kultur Etxean antolatu den mendi proiektzio ikusgarri bat aurkeztera.

Zehazki, Karakorumen egindako eskaladak ikusi ahalko dira ikus-entzunezko horretan, Torre sin Nombre izeneko ibilbide berriaren irekitzea, kasu. Ibilbide hori irekitzeko 15 egunez paretan ibili ziren, Karakorumen iparraldeko aurrealdean. Zabalzak dioenez, Karakorume “eskalada oso ezberdinak” egiteko aukera eskaintzen du, eta horien guztien berri emanen du bihar Olaztin.

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Lagun Artea – San Andres	1-0
Etxarri Aranatz – San Jorge	3-0

SAILKAPENA	
1. Lagunak	42
12. Lagun Artea	24
13. Etxarri Aranatz	20

PARTIDUAK	
IGANDEAN	
16:30 San Jorge – Lagun Artea <i>Iruña</i>	
12:30 Ardoi B – Etxarri <i>Zizur</i>	

Lakuntzan, San Andresekoek ate propioan sartu zuten gola; errenta ongi kudeatzen jakin zuen Lagun Artea eta 3 puntuak Lakuntzan geratu ziren. San Donaton, Etxarri hasieratik dominatu zuen eta Alainez eta Garatek (2) sartutako golei esker garaipena lortu zuen.

ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	
Altsasu – Amaia	1-0

SAILKAPENA	
1. Pamplona B	36
3. Altsasu	35

PARTIDUAK	
IGANDEAN	
12:30 Berriozar – Altsasu <i>Berriozarren</i>	

Dantzalekun, hasieratik hartu zuen agintea Altsasuk. Azkenean saiakerek fruitua izan zuten eta Imanol Martinezek garaipenaren gola sartu zuen.

ELOMENDIKO TXAPELK.

EMAITZAK	
Zaldua – Izalsa	2-0

SAILKAPENA	
1. Unziti	47
4. Zaldua	31

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
Zehaztu gabe Ageri – Zaldua <i>Ukar</i>	
Zalduak laugarren postuari eusten dio.	

EMAKUMEEN ERREG.

EMAITZAK	
Altsasu – Itaroa Huarte	0-6

SAILKAPENA	
1. Berriozar	61
13. Altsasu	14

LARUNBATEAN	
16:00 Ardoi – Altsasu <i>El Pinar</i>	

Emakumezkoen Erregional mailan, Itaroa Huartek erraz irabazi zion Altsasuri Dantzalekun jokaturako partidari. Orain, berriz altxatu eta larunbatean 14.a eta arerio zuzena den Ardoi izango dute aurkari altsasuarrek.

Burunda txirrindularitza taldearen aurkezpena

TXIRRINDULARITZA Larunbatean 2018ko denboraldiaren aurkezpena egin zuen Burunda klubak, Juan Mari Guajardo speakerrak gidatutako ekitaldian. Burunda taldean aurten 57 txirrindulari trebatuko dira, aurreko urtean baino 5 gehiago

Larunbatean 2018 denboraldiaren aurkezpena egin zuen Burunda Txirrindularitza Klubak Iortia Kultur Gunean, Juan Mari Guajardo speakerrak gidatutako ekitaldian. Aurreko urtean 52 txirrindulari zituen klubak eta aurten 5 gehiago dira, 57 guztira. Horietatik 44 eskola kategoriakoak dira, 8 kadeteak eta 5 juniorrak. Burunda klubaren helburuak kiroltasuna sustatzea eta gazteek txirrindularitzan gustura ibiltzea dira, hori ere argi geratu zen aurkezpenean. Gazteak hezi eta txirrindularitzaren balioak transmititzea, hori da euren nahia, eta emaitza onak etortzen badira, primeran.



Aurkezpenaren une bat.

8 proba, 1 gehiago

Burundako aurten lasterketa bat gehiago antolatuko du, 8 proba guztira. Eskolen mailan 5 izanen dira, Ziordian, Olaztin, Altsasun, Urdiainen eta Iturmendin, festetan. Kadete mailan bi proba, apirilaren 22an Altsasun eta uztailearen 3an Urdiainen, eta junior mailan proba bat Altsasun, ekainaren 3an jokatu dena.

Burundako zuzendaritzan Oscar Guerrerok jarraitzen du presidente, Iñaki Lasak presidenteorde, Gorka Mintegik idazkari eta Ismael Perezek diruzain. Joxean Begiristain, Goyo Chamorro, Pablo Urtaşun eta Eugenio Ondarra bokalak dira.

Aiarako Biran Burundako eta Aralarko sakandarrak nagusi

Larunbateko lehenengo etapa Burundako Unai Aznarrek irabazi zuen eta igandeko etapa Aralarko Aitor Alberdik

Larunbatean hasi zen XXIX. Aiarako Bira, kadeteen mailako lasterketa. Bost etapa ditu, hiru asteburutan jokatu direnak. Lehendabiziko asteburuan bi etapa jokatu ziren eta Sakanako bi taldeak, Burunda klubeko Quesos Albeniz eta Aralar klubeko Intersport Irabia, izan ziren jaun eta jabe.

Larunbateko lasterketa Laudion jokatu zen. Esprintean erabaki zen garaipena eta Quesos Albenizko Unai Aznarrek garaipen polita lortu zuen (1:01:47), eta, horretaz gain, mendiko sailkapena irabazi zuen. Bere taldekideek ere lan bikaina egin zuten. Iker Mintegi 8.a sartu zen, Sergio Lopez 12.a, Hugo Aznar 16.a –guztiak irabazlearen denbora berean– Antonio Gonzalez 49.a, Migel Gil 51.a eta Jon Chamorro 52.a. Quesos Albeniz izan zen etapa-

ko talderik onena. Aralar klubeko txirrindulariak ez ziren aritu.

Hurrengo egunean, igandean, Aiarako Birako bigarren etapa hartu zuen Amurriok, eta egun honetan Aralar klubeko Intersport Irabia taldea izan zen nagusi. Laukote bat iritsi zen helmugara eta esprint zoragarrian Lakuntzako taldeko Aitor Alberdi gailendu zen (1:06:56), bere taldekide Igor Arrietaren aurretik. Haien taldekide Martzel Etxeberria 18.a sailkatu zen eta Mikel Lizasoain 52.a. Igor Arrietak mendiko proba irabazi zuen, Aitor Alberdiren aurretik. Probako talderik onena izan zen Intersport Irabia. Burunda klubekoak ez ziren etapa honetan aritu.

Larunbatean Aiarako Birako hirugarren etapa jokatu da, 16:00etan, Artziniegan.

Burunda Txirrindulari Taldea



Burunda klubak 57 txirrindulari trebatuko ditu aurten

Larunbatean egin zuten Burunda Txirrindularitza Klubaren aurkezpena, Altsasuko Iortia Kultur Gunean. 57 txirrindulari trebatuko dira aurten Burundan, aurreko urtean baino 5 gehiago. Kiroltasuna sustatzea eta neska-mutilak txirrindularitzan gustura ibiltzea dira helburuak, gazteak hezi eta txirrindularitzaren balioak transmititzea. Dagoeneko juniorren eta kadeteen probak hasi dira eta aurrerago hasiko dira lanean kategoria txikikoak.

- **Eskolak (44): Promesak (9):** Daniel Curiel, Enara Perez, Asier Galarza, Eneko Gallego, Javier Ramirez de Alda, Patxi Azkarate, Ekaitz Zufiaurre, Egoi Urtaşun eta Markel Urteaga. **Hasiberriak (11):** Xabier Curiel, Izai Igeltz, Unai Gomez, Asier Flores, Markel Lizarraga, Alex Gonzalez, Aitzol Hernaz, Gabriel Gonzalez, Eneko Pinto, Ibai Galarza eta Joan Lizarraga. **Kimuak (15):** Ekaitz Perez, Ekiñe Agirre, June Etxeberria, Maider Ondarra, Ekain Imaz, Hegoi Garcia, Oihan Arregi, Oihan Hernaz, Eneko Chamorro, Andoni Yerai Bedoia, Izhan Sanchez, Ion Aierbe, Iker Begiristain, Pablo Senosiain eta Iker Gomez. **Haurrak (9):** Asier Etxeberria, Mikel Regil, Aitor Barandalla, Mikel Lizarraga, Julen Guerrero, Ander Villalobos, Mikel Unzilla, Unax Trejejo eta Nahia Imaz. **Entrenatzaileak:** Ismael Perez, Eugenio Ondarra eta Gorka Mintegi.
- **Kadeteak (8):** Oihan Etxeberria, Ion Chamorro, Hugo Aznar, Iker Mintegi, Unai Aznar, Sergio Lopez, Antonio Gonzalez eta Migel Gil. **Entrenatzaileak:** Ion Irigoien eta Eneko Vilas.
- **Juniorrak (5):** Jonathan Felix Vega, Unai Villalobos, Ailetz Lasa, Mateo Gonzalez eta Diego Gonzalo. **Entrenatzaileak:** Tomas Martinez eta Aritz Irigoien.



C.C. LA MOREA
C.C. ITAROA



Laguntzaileak: Laket, Txartel, Pienosos Unamuno, Berri Bikes, TDH Lizarraga, La Borda Jatetxea, Lastadi, Talleres Gabirondo, Electricidad Ramos, Deportes Intxostia, Floristería Lorea, DYA, Ziordiko, Olaztiko, Altsasuko, Urdiaingo eta Iturmendiko Udalak, Sakanako Mankomunitatea, Alejandro Hernandez asesoritzza, Garage Urbasa.



Beñat Katarain igandean, Orioko lasterketan. UTZITAKOIA

Orioko mendi lasterketa Beñat Katarainendako

MENDI LASTERKETAK Galar Trailen Gorka Santesteban bederatzigarrena sailkatu zen

Asteburuan jokaturako mendi lasterketetan bikain ibili dira gure korrikalariak. Igandean Beñat Katarain lakuntzarrak errezitala eman zuen 8. Orioko Mendi Lasterketan (21 km) eta bakarrik iritsi zen helmugara (1:50:10). 10 segundo atera zizkion Azkoitiko Imanol Larrañagari. Emakumezkoetan Oihana Azkorbebeitia izan zen lehena (2:07:41).

IV. Galar Traila

Katarainek Orion garaipena lortzen zuen aldi berean, Galarrren IV. Galar Traila jokatu zen, 18,5 km-ko proba. Tartean Erreniega gaingitu behar izan zuten proba despeditu zuten 381 korrikalariak. Txapelkunak Xabier Zarranz (1:31:41) eta Laura Sola (1:49:20) izan ziren. Sakandarren artean Gorka Santesteban izan zen azkarrena (1:39:09), helmugara bederatzigarrena sartuta.

MENDIA Anbotora Sakanako Mendizaleekin

Sakanako Mendizaleak taldeak prest du martxoko irteera. Anboto igotzea, hori izango da gure mendizaleen helburua. Autobusa martxoaren 25ean goizko 7:00etan aterako da Irurtzundik. Izena ematea zabalik dago, ohiko tokietan edo herri bakoitzeko arduradunei esanez. Bestela, 639 11 76 31 telefonora hots egin daiteke.

Sakandarren emaitzak

Orioko Lasterketa (21 km)

1. Beñat Katarain (Lak):	1:50:10
23. Joxeja Maiza (Etx):	2:08:54
42. Iker Flores (Urd):	2:17:19
50. Ioseba Iza (Arb):	2:19:35
60. Fran Araña (Arb):	2:20:50
108. Asier Leiza (Arb):	2:32:02
184. Iñaki Lacalle (Olaz):	2:51:22

Galarko Traila (18,5 km)

1. Xabier Zarranz (Irunb):	1:31:41
9. Gorka Santesteban (Etxarren):	1:39:09
38. Mikel Iriarte (Arb):	1:51:57
47. David Mutiloa (Irun):	1:53:46
66. Mikel Satrustegi (Arru):	1:56:51
102. Juan D. Lakuntza (Etx):	2:03:42
328. Hodei Lakuntza (Etx):	2:46:40
364. Aitor Mendia (Itur):	3:01:25

PILOTA Koldo Murgiondo Zizurko txapeldunordea

Larunbatean Zizurko lau terdiko txapelketako finalak jokatu ziren, 12 final guztira. Senior mailan, Koldo Murgiondo etxarriarrak (Irurtzun) Beñat Mitxelena (Bortzirriak) izan zuen aurkari. Biak parez pare aritu ziren partida oso estuan, baina, azkenean, Mitxelenak jantzi zuen txapela, oso lehia estuan (18 eta 14).

June Kintana txapelduna

DISKO JAURTIKETA Asteburuan Espainiako jaurtiketa luzeen Txapelketa jokatu zen Badajozen. Grupompleo Atlético taldeko June Kintana Larraza bakaikuarrak txapelketa irabazi zuen, diskoa 50.13 metro jaurti eta gero. 40 zentimetroko alde atera zion Andrea Alarcón kataluniarrari. Hirugarrena Mar Morant valentziarra izan zen (47.72 m).



ESPAINIAKO ATLETISMO FEDERAZIOA

Lapunteren, Baztanen eta Fernandezzen dominak

IRRIKAKETA Nafarroako Pista Irrikaketa Txapelketan bikain ibili dira irrikalari sakandarrak. Iratxe Lapuentek, Unai Baztanek eta Ioseba Fernandezek 9 domina lortu dituzte eta Espainiako Txapelketarako sailkatu dira

Txantreko patinodromoak Nafarroako Pista Irrikaketa Txapelketa hartu zuen asteburuan. Hiru irrikalari sakandarrek 9 domina lortu baitzituzten.

Kimuen emakumezkoetan Iratxe Lapuente Perezek 300 m esprintean urrezko domina lortu zuen, 1.500 m linean zilarrezkoa eta 3.000 m puntuetan, aldiz, brontzezkoa. Gizonezkoen juniorretan Unai Baztan Abanses altsasuarrak 500 m esprintean zilarrezko domina eskuratu zuen, 1.000 m esprintean brontzezkoa, 5.000 m kanporaketan zilarrezkoa eta 10.000 puntu kanporaketan zilarrezkoa. Eta gizonezkoen senior mailan, Ioseba Fernandez iturmendiarrak bi urrezko domina lortu zituen, 500 m esprintean eta 1.000 m esprintean.

Sakanan pistaren beharra

Sakanan irrikaketa pista izatearen beharra aspaldiko aldarrikapena da. Sakana Patin taldeak pista egiteko aurreproie-



Iratxe Lapuente eta Ioseba Fernandez, lortutako dominekin. SAKANA PATIN

tua dauka prest. Pista estalia izanen litzateke, eta irrikaketa gain, beste hainbat kirol egiteko aukera emanen luke –tenisa, areto futbola, hockey, saskibaloia, txirrindularitza...-. Nonbait, Altsasuko alkatearekin hitz egin

dute eta Dantzalekuko hareazko zelaian pista egiteko udalak ez luke arazorik jarriko. Baina aurrera egiteko beste entitate batzuen laguntza eskatzen dute, Mankomunitatearena eta Nafarroako Gobernuarena, tartean.



Ekhi Congil monozikloan, Donostian, salto ikusgarrian. EKHI CONGIL

Mundialetara joan nahi du

MONOZIKLISMOA Uztailaren 29tik abuztuaren 10era jokatu da Hego Koreako Seuleko Ansan, Unicon 19, Munduko Monoziklo Txapelketa. Bertara joateko entrenatzen eta babesle bila dabil Ekhi Congil Mendiola etxarriarra

Uztailaren 29tik abuztuaren 10era bitartean Unicon 19, Munduko Monoziklo Txapelketaren 19. edizioa jokatu da Hego Korean, Seulen, Ansan. Hainbat proba izanen dira: distantzia ezberdineko lasterketak, slalom txapelketak, erreleboak... eta bertan parte hartu nahi du Ekhi Congil Mendiola monoziklista etxarriarra. Monozikloarekiko zaletasuna aspalditik dauka gazteak, eta emaitza bikainak ditu.

Europako Txapelketatik lau domina ekarri zituen

Ekhi Congil 2017an EC Unicycling proban aritu zen, Europako Monoziklo Txapelketan. Herbehereetako Sittard-Geleen hirian jokatu zen, eta monozikloan ibiltzen direnen bilgune nagusietako bat da EC Unicycling. Europa guztiko 700 monoziklista lehiatu ziren eta Espainiar Estatutik 3 zeuden, bi soriar eta Congil bera. Etxarriarra bikain aritu zen eta lau domina ekarri zituen bertatik: zilarrezko hiru -1 km, luzera-jauzia eta Ciclo Cross-, brontzezko bat -maratoia- eta bosgarren postu bat, Cross Countryan. Horretaz gain, bere mailan, 19 urtez azpikoan eta 21 urtez azpikoan, urrezko hiru domina lortu zituen. Baina lortutakoaz baino, bizitako esperientziarekin etorri zen kontentu, beste monoziklistekin harreman estua egin baitzuen. Orduan adierazi zuen bere hurrengo ametsa aurtengo udan

Hego Korean jokatu den Unicon 19 Munduko Monoziklo Txapelketan lehiatzea izango zela eta ametsa egi bihurtzeko laguntza eta babesleak lortzen saiatzen ari da Ekhi Congil.

Entrenatzen

Hemen ez dago monoziklo federaziorik eta, hortaz, IUF-en dago federatuta Ekhi Congil, International Unicycling Federation taldean, Alemanian. Basque Country taldeko ordezkari bezala lehiatuko da Congil, aukera hori badagoelako. Bere ametsa gauzatzeko babesle bila dabil etxarriarra, eta edonork interesa badu ekhicongil@gmail.com posta elektronikoa jarri daiteke harremanetan berarekin.

Bitartean, Mundialak prestatzen dabil monoziklista etxarriarra. "Eguraldi txarra egin du, baina entrenatzen ibili naiz. Orain korrika egiten nabil, monozikloari konponketa batzuk egiten ari garelako; Beasaingo lagun batek egiten dizkit konponketak. Pieza batzuk lortzea konplikatu izaten da eta hor gabiltza, baina berehalaz puntuan izatea espero dut" dio Ekhi.

2017AN EUROPAKO TXAPELKETAN ARITU ZEN ETA LAU DOMINA LORTU ZITUEN EKHI CONGILEK



ISKIZA SAKANA

Gimnastekin liluratuta

GIMNASIA ERRITMIKOA Iskiza Sakana, Sutegi, Errotxapea, Agurain eta Araia gimnasia erritmikako klubetako 100 gimnasta inguruk sekulako erakustaldia egin zuten larunbatean Olaztiko Erburua kiroldegian. Gazteek eskainitako koreografia ederrekin gozatu

ederra hartu zuten Erburuan bildu ziren zaleak. Banaka, taldeka eta gimnasiako aparatu guztiak erabiliz, ikuskizun ederra eskaini zuten. Martxoaren 17an hasiko den Nafarroako Banakako Txapelketarako entrenamendu bikaina izan zen.

Zatoz eta ezagutu ezazu nolakoa den egun bat ikastolan

948 373023

Erabaki garrantzitsua da, horregatik... ezagutu, hausnartu eta erabaki

LEHEN URRATSAK ELKARREKIN...

Bitartean harremanetan

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 9

LAKUNTZA Ines Bengoaren *kamishibai* ipuinen kontaketa saioa.

18:00etan, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ *Bizitza dario*, komiki lantegia Iñaki Martiarena, Mattinekin. DBHko ikasleendako. 18:00etan, liburutegian.

ALTSASU *Top chef* ostiralak. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Atxiloketa baten aurrean zer egin. Prestakuntza praktikoko saioa eskainiko du Askatasun Kolektiborako Abokatuak, Ospak, AGAk eta IAK antolatutako saioan. 18:30ean, Gure Etxea eraikinean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

ALTSASU *Esperience Palestine*. Rafat Shantirrek eta Mutaz Al Taminik euren bizipenen berri emanen dute, ingelesez. 19:00etan, lortia kukltur gunean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. 20:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Xabi gudari eraila. Hemen ez dago bakerik. Herriak ez du barkatuko. Manifestazioa deitu du Sakanako AEM-k. 20:30ean, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.

20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU *Me estás matando Susana* filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA *Salir de cuentas a los 50* antzezlana eskainiko du Tdiferencia konpainiak. 22:30ean, kultur etxean.

LARUNBATA 10

ALTSASU Altsasu eta Urritzola arteko 87 km-ko joan-etorria egingen dute Barranka Txirrindulari Taldeko errepide atalekoek. 9:30ean, San Juan plazatik.

EGIARRETA Arakilgo zuhaitzaren eguna Itsasperrin ospatuko da. 10:30ean, ermitan.

ALTSASU Euskal Herriko inauterietan oinarritutako erromeria, Altsasuko Musika eta Dantza eskolak eta Etorkizuna dantza taldeak antolatuta. 17:00etan, musika eskolatik abiatuta.

IRURTZUN *Astonauta tronpeta flauta* ikuskizuna eskainiko du Ene Kantak-ek. 18:00etan, kiroldegian.

ALTSASU Egun guztiak dira martxoak 8. 18:00etan, Intxostiapuntan.

LAKUNTZA Jorge Sanchezen kontzertua. 19:00etan, kultur etxean.

ARBIZU *Erradikalak gara*, Ane Labakaren eta Beatriz Egizabalen ikuskizuna. 19:00etan, Argi Bidean.

ALTSASU *La niña bonita* dokumentalaren proiektzioa eta ondorengo eztabaida, Sakana Harrera Haranak antolatuta. 19:00etan, Gure Etxea eraikinean.

OLATZAGUTIA *Escaladas por el Karakorum* mendi proiektzioa egingen du Mikel Zabalzak. 19:00etan, kultu etxean. Altsasu. *Conversaciones con mama* antzezlana ekarriko du Txalo produccionesek. 19:30ean, lortia kultur gunean.

IGANDEA 11

ALTSASU Artzaintzaren ibilbidea, Unanu 48 km-ko joan-etorria egingen du Barranka txirrindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak. 09:00etan.

ARBIZU Zuhaitzaren eguna. 12:00etan, plazan.

ALTSASU *Salvando el reino de Oz* filmaren emanaldia. 17:00etan, lortia kultur gunean.

OLATZAGUTIA Marko Makako euskarazko filmaren proiektzioa. 17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU *Las hijas de Abril* filmaren emanaldia. 17:30ean eta 19:40ean, lortia kultur gunean.

LAKUNTZA Bingoa. 18:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Helduendako berdintasunari buruzko film laburren emanaldia, Katti Goikoetxeak eta Maider Zabaletak bideratuta. 18:30ean, Pikuxarren.

ALTSASU *Me estás matando*



ALTSASU Etorkizuna dantza eskolaren 25. urteurren erakusketa. Martxoaren 11ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.

Susana filmaren emanaldia. 19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 12

ETXARRI ARANATZ Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa egingen du Sasoik-ek. 11:00etan, plazan.

UHARTE ARAKIL *Gure genealogia feministak*, mugimendu feministari buruzko hitzaldia emanen du Miren Arangurennek. 18:00etan, udaletxean.

ASTEARTEA 13

IRURTZUN Elikadura eta ariketa fisikoa 2. motako diabetesen tailerra. 17:00etan, udaletxeko bilkura gelan.

ASTEAZKENA 14

IRURTZUN Elikadura eta ariketa fisikoa 2. motako diabetesen

tailerra. 17:00etan, udaletxeko bilkura gelan.

OSTEGUNA 15

ETXARRI ARANATZ Irakurle taldearen hitzordua, Jose Luis Alvarez enparantza, Txillardegiren, Elsa Scheelen liburuaz hizketatzeko. 19:00etan, liburutegian.

ALTSASU *El cuaderno de Sara* filmaren emanaldia. 19:00ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Pentsio duinen alde. 19:30ean, udaletxe parean.

ZORION AGURRAK



Irati ZORIONAK potxola!! Mila muxu eta oso ongi pasa zure 7. urtebetetzean! Etxekoak.

Ane ZORIONAK polit hori!! 5 urte astelehenean beteko dituzu! Oso ongi pasa lagunekin eta etxekoekin. Muxu pila bat.



DE KOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860





LAKUNTZA Alvaro Mundiñanoren Barne barnetik margo erakusketa. Gaurtik, martxoaren 11ra arte, 17:00etatik 20:00etara, Lakuntzako kultur etxean. Gaur, 19:00etan, mustutzea eta auzatea.



ARBIZU Herriko emakumezkoen sormen lanen erakusketa.

Martxoaren 14ra, astegunetara 16:30etik 20:00etara, udaletxeko batzar aretoan.

IRAGARKI SAILKATUAK

OHARRAK
Olatzagutiko irakurle taldea. Marxoaren 16an, ostiralean, 21:00etan liburategian elkartzeko dira Sofi Oksanenen Purga liburuaren inguruan hizketatzeko.

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

Otadiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokian edo herriko banku eta kutxetan zabalduko kontuetan sartu daitezke.

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresari Elkarteak langabeei eta lan bila dabilzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezate.

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederena-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea

edota martxan dagoen jardura sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquín Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitzake informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korrontean egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2 1 0 0 2 1 7 3 8 7 0200346965

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslariaren aldeko abenduaren 30eko ekimenaren parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartsunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

www.iragarkiaburak.eus

Nabarmendu zure iragarkia
Tamaina berria. Galdetu prezioa.

948 564 275

Nabarmendu zure iragarkia
Tamaina berria.

Galdetu prezioa.
948 564 275

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskalak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 € prezio hauek BEZa bame dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

JAIOZAK

- **Elaia Arellano Latiegui**, otsailaren 15ean Aizkorben
- **Maddi Goñi Galarza**, otsailaren 23an Etxeberrin
- **Asier Viudez Gaujot**, otsailaren 28an Altsasun
- **Mara Arbizu Otamendi**, martxoaren 3an Urdiainen
- **Osiñe Apalategi Urbitarte**, martxoaren 6an Etxarri Aranatzen

EZKONTZAK

- **Markel Erdozia Razkin eta Nerea Pazos Arbizu**, martxoaren 3an Etxarri Aranatzen


HERIOTZAK

- **Mari Carmen Unzilla Maiza**, otsailaren 21ean Dorraon
- **Maria Luisa Lopez Galarza**, otsailaren 28an Iturmendin
- **Maria Angeles Andueza Razkin**, martxoaren 7an Lakuntzan
- **Candido Itoiz Eusa**, martxoaren 7an Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA..


EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 9




Ezegonkortasuna izango dugu egun guztian. Goizaldean giro argiagoa izango dugu, baina egunaren bigarren zatian euri zaparrada ugariak izango ditugu.

Larunbata, 10




Temperaturaren gorakada nabaria izango da. Udaberri giroa nabaritu dugu, hala ere, egunaren bigarren zatian, berriro ere prezipitazio ugariak izango ditugu.

Igandea, 11



Euriaren jarraituko dugu egun guztian zehar, hau dela eta, temperatura ez da hainbeste igoko. Baina giro epelarekin jarraituko dugu igandea.


Astelehena, 12



Eguraldia hobetuz joango da egunak aurrera egiten duen heinean. Temperaturaren igoera sentituko dugu egunaren azken orduetan.

Martxoaren 8ko greba feministan parte hartuko duzu?

Azken unean erabakiko dut



tanatorios
IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es



Erakusketaren mustutzeria jendea gerturatu zen. ARBIZUKO UDALA

Arbizuko 10 emakumezko sortzaileraren lana ikusgai

Emakume sortzaile arbizuarren lanak udaletxean ikus daitezke, astegunetan 16:30etik 20:00etara

ARBIZU

Ino Arana, Mila Berastegi, Argiñe Berastegi, Ramoni Berastegi, Cristina Fernandez, Inma Garcia, Katrin Ginea, Pagoa Urzelai, Iratxe Reparaz eta Libe Amunarriz. Hamar emakume arbizuar horien lanak ikusgai daude herenegundik asteazkenera arte, Arbizuko udaletxeko batzar gelan.

Guztiak emakumea gai hartuta sortu dituzten lanak dira ikusgai daudenak. Haietako batzuk erakusketarako propio prestatutakoak dira. Bestek, berriz, lehendik sortutakoak.

Ikusgai dauden lanen artean pintura, bidaiatik body-art-era lantzen duten argazkiak, instalazioak, eskulanak eta proiektu bat daude. Azken hori Iratxe Reparazek eta Libe Amunarrizek elkarlanean egindakoa da.

Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta Arbizuko Udalak antolatutako erakusketa da aipatutakoa. Haren bidez, "emakumearen sorkuntzari eta parte hartzeari ikusgarritasuna eman eta espazio bat eskaini" nahi dio. Horrekin batera, martxoaren 8aren inguruan jardue- ra gehiago antolatu dira.

"Astonauta, tronpeta flauta" ikuskizuna Irurtzunen

Ene Kantak-ek *Astonauta tronpeta flauta* ikuskizuna eskainiko du bihar, 18:00etan, Irurtzungo kiroldegian. Eneko eta Nerea dira oholtza gaineko abentura horren protagonistak. Lur planetan barrabaskeria asko daude: kutsadura, kontzertinak, gerrak... Bi lagunek zerbait egin nahi dute mundua hobetzeko eta liburu magikoaren bitartez, irria hedatuz eta abestiek dantzatzuz, ilargira doaz konponbide baten bila.

Bertan asto bat aurkitzen dute eta hasieran beldurra sortarazten duen estralurtar bat ere bai. Astoak magia egiten du eta Eneko eta Nerea lagundu nahi ditu. Mundua laguntzea lortuko dute?



Filmeetako musika erreperitorioa emateko 90 musikari

Haize Berriak banda Irurtzun, Lakuntza, Etxarri eta Altsasuko musika eskoletako ikasleekin aritu zen Altsasun larunbatean.



Bihar 19:00etan Aрги Bidean. UTZITAKOIA

Feminismoaz, bertsotan eta bakarrizketan

Beatriz Egizabal (antzerkilari eta ipuin kontalaria) eta Ane Labaka (bertsolaria) dira *Erradikalak* gara ikuskizuneko protagonistak, bihar, 19:00etan, Arbizuko Argi Bidea elkartearen emanen dena. Bertsoaren eta bakarrizketaren bidez biek kontrastez beteta duten mailetaz ariko dira, "erraietatik ariko gara, umorez, erroetara iritsi nahian".



BAZTERRETIK

JOSE LUIS ASENSIO

Bakardadea 2

Bakardadearen iturriak aztertu ondoren, suizidioaren kultura ere aipatzeko moduko gaia da Japonian. Ez da soilik ikusi genuen moduan depresioaren zurrumbilo ilunean erortzeko beste gizarte batzuetan baino faktore gehiago daudela, baizik eta Japoniako gizarteak ondo ikusi duela norbaitek bere buruaz beste egitea askotan. Feudalismo garaian, samuraiek *Harakiri edo Seppuku* egiten zuten beraien eta beren familia eta arbasoen ohorea babesteko. Gerrate mundialean Kamikazeak heroiak ziren. Yukio Mishima literatura Nobel saria irabazi zuen idazleak ere bere buruaz beste egin zuen suizidio errituala erabilita 1970 urtean.

60. hamarkadan Seicho Matsumoto izeneko idazleak *Kuroi* Jukai izeneko ipuina argitaratu zuen, non bi



Gaur 22:30ean kultur etxean. UTZITAKOIA

Amatasuna eta aitatasuna, nahi denean

Olatzagutiko kultur etxeak *Salir de cuentas a los 50* antzezlan hartuko du gaur, 22:30ean. Tdiferencia konpainiak komedia eroa dakar. Protagonistak gu-raso izatea erabaki dute, "berandu". Amatasun eta aitatasun berantiarri eta derrigorrezko urratsei eta denborei ez jarraitzeko eskubideari buruzkoa. Eduki aldarrikatzailez eta polemikoz betetako obra.



Larunbatean, 19:30ean Iortian. UTZITAKOIA

Amaren eta semearen arteko elkarriketa hunkigarria

Maria Luisa Merlo amarena egiten eta Jesus Cisneros semearena *Conversaciones con mama* antzezlanaren. Larunbatean, 19:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean. Amak 76 urte duin ditu eta semeak 50 urte, emaztea, bi seme eta etxe eder bat. Biak oso mundu desberdinetan bizi dira. Jaime lanik gabe geratzen da eta erabaki gogorrak hartu behar-ko ditu.

amorantek beren buruaz beste egiten duten Japoniako baso batean, erromantizismo klasikoaren osagai guztiak barne. Baso hura *Aokigahara* basoa da, eta beste zenbait eleberritan ere agertu da gero, nork bere buruaz beste egiteko toki aproposa gisa deskribatuz, ala nola "suizidioaren erabateko eskuliburua" non zuhaitz batetik zintzilikatuta hiltzea artelan gisa deskribatu egiten den. Esaten omen da, bere buruaz beste egiten duten pertsonen kopurua kontutan hartuta, munduko lehenengo postuetan dagoela, San Frantzisko hiriko *Golden Gate* zubiaren atzetik besterik ez.

Hori dela eta, gobernuak begiraleak jartzeko ekimena bultzatu zuen. Gaur egun boluntario ugari ibiltzen da basoan zehar bueltaka ekintza

susmagarrien bila, eta kartel asko jarri dira ere bakarrik sentitzen den jendeari laguntza eskainiz.

Bestalde, interneten webgune asko sortu dira nork bere buruaz beste egiteko laguntza eta aholkuak eskainiz. Larrienak edo eroenak, suizidio-kideak aurkitzeko web guneak izan daitezke, bertan jendeak "lagunak" aurkitu nahi ditu haiekin batera bere buruaz beste egiteko. Eta kasuren batean, poliziak pertsonaren bat atxilotu izan du bere buruaz beste egin nahi zuten pertsonak bilatu eta erailteagatik.

Esperantza izpi bat ere bada Japoniako gizartearentzat, azkenean bizirik jarraitzeko sena atzematen zaie.

Jarraituko du.

Gaur ez: rock gordinaren eta melodikoaren artean

Bigarren lana labetik atera berria eta lehen aurkezpen kontzertua eginda, aurrera begira jarri da Gaur Ez taldea. Abeslari berriarekin lan berria aurkezteari ekin diote. Emakumeen askatasunaz hitz egiten duten bi kantu agertzen dira Gaur Ez II diska berrian

Maialen Huarte Arano IRURTZUN

Lehenengo diskoa atera zutenean asko aldatu dira Gaur Ez taldean. Abeslari berriarekin datoz oraingoan, adibidez. Baina, esentzia eta nortasuna galdu gabe igo dira oholtza gainera berriz ere. Lokalean ere modu horretan sartu dira. "Ez gara inoiz desagertu, estudioetan eta entseatzeko geratzen segitu dugulako", azaldu du Xabi Unanua taldekideak. Kitarrak, baxuak eta bateriak astintzen segitu du Gaur Ez taldeak. Tartean, abeslariak, Julek, taldea uztea erabaki zuen eta egoera berri horren aurrean erabakiak hartzen aritu ziren. Zehaztasunik gabe lehenbizi. Kantuak sortzen eta barnera begira. Baina behin, kantu mordoxka eskuartean zituztela, *casting*-a egiten hasi ziren abeslari berria taldean sartzeko. Amaia da orain Gaur Ez taldeari ahotsa jartzen diona. "Ahots desberdinak dira, baina, bakoitzak bere nortasuna du. Amaiak, indarra du, tinbre polita du", dio Unanua. Gainerako taldekideekin osatzen da Gaur Ez: "Bizitasuna ematen dio Julenek bateria joz, Idoiak pertsonalitatea eta nortasuna, Alfredorekin batera ni neu taldearen arima garela esanen nuke, taldearen sortzaile ere bagaren aldetik".

Txuria eta morea aukeratu dituzte bigarren laneko diskoaren portadarako. Begiak ere, gertu gertutik ikus daitezke azaleko irudian. "Taldea oholtza gainera igotzeko zuen gogoak islatuta gelditu dira diskoaren azaletik hasita", esan du Unanua. "Begirada femeninoa da. Gogorra eta indartsua".

Musika konposizio aldetik, diskoa borobildu nahi izan dute, ziklo baten gisan irudikatu dute: "Intro batek barneratzen du entzulea, kantuak datoz gero eta amaierarako out bat ere badago, hasierako introarekin lotura



Gaur Ez taldeko boskotea. UTZITAKOIA

"KORAPILOA ABESTIA SORPRESA HANDIA IZAN DA; BIDEOAK DENBORA GUTXIAN 5.000 IKUSTALDI DITU"

duena eta irteera bat markatzen duena", adierazi du. Bederatzi kantu dira, guztiak euskaraz. "Zalantzarik ez dugu, gure komunikatzeko hizkuntza da euskara. Beti euskaraz egin dugu, baita gure artean ere. Harremanak euskaraz dira eta gure egunerokoa ere bai. Kantuak ere, halakoak dira", esan du. Beste hizkuntzak ez dituzte baztertzen baina ildo nagusia euskara izan dela ziur dute.

Hitzen aurretik, doinua

"Musika egiten dugu lehenbizi, eta gero etortzen dira letrak". Gaiak adosten dituzte taldekideen artean eta gero, kantuak elkarrekin edo norberak ere sortzen ditu. "Mezuak azaleratzeko modurik ederrenetakoa da musika. Norberaren arazoak, sentipenak, amorrak, aldarrikapenak... azaleratzen ditugu", azaldu du.

Musikari dagokionez, erreferentzia desberdinak dituzte taldekideek. Hori guztia nahastuta sortu da Gaur Ez. "Rocka da. Gordina eta melodikoa. Diskoan eta zuzenekoan entzuteak ere ez du zer ikusi handirik. Neurtuagoa dago diskoan, zuzenekoan libreagoa da".

Lehenengo diskotik urte batzuk pasata, aldaketak sumatu daitezke Gaur Ez taldearen bigarren lan honetan. "Goxotu egin gara", esan du Unanua. Norberaren gustuak ere aldatu egin dira. "Teklatua, giro elektronikoa ere entzun daiteke zenbaitetan.... gauza berriak sartu eta ikasten segitzen dugu. Eboluzionatu egin dugu, eta eboluzionatzen segitzen dugu".

Jendaurrean

Otsailean aurkeztu zuten bigarren diskoa Gaur Ez taldekoek Iruñeko taberna batean. Abeslariarentzat lehen kontzertua zen. "Bost urteren ondoren igo ginen taula gainera, eta, sentazio desberdinak izan genituen". Maiatza Rock jaialdian eta Iruñeko auzoetako festetan ere jotzea aurreikusitako dute.

Osorik: www.guaixe.eus



Irakurri, gozatu eta oparitu kanpaina Altsasuko liburutegian. ARTXIBOA

Irakurritz gozatu eta gozarazteko kanpaina bueltan da

Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpaina astelehenetik maiatzaren 31ra arte martxan izanen da liburutegietan

SAKANA

Euskaltzaleen Topaguneak Euskal Herriko beste 42 toki administrazioarekin batera antolatutako kanpaina da Irakurri, Gozatu eta Oparitu (IGO). Euskarazko irakurzaletasuna sustatzeko kanpaina horrekin bat egin du Sakanako Mankomunitateak, sakandarren artean "irakurketaren plazera" sustatu eta "plazer hori opari bihurtuta partekatzeko".

IGO kanpainan parte hartzeko lehen lehenik liburutegira joan behar da. Han euskarazko liburu bat aukeratu, etxera era-

man eta hura irakurritz gozatu egin behar da. Liburua irakurri ondoren, liburutegira bueltatu eta irakurle-fitxa emanen du liburutegian. Liburuari buruzko iritzia han idatzi eta trukean erosketa txeketa jasoko duzu.

Txartel horrekin ibarreko liburu-dendaren batera joan eta han, txeketa erabiliz, liburu bat % 35 merkeago erosteko aukera izanen da. Kanpainako azken pausoa liburu oparitzea da: senide, lagun, lankideren bati... Edo, mereziz, gero nork bere buruari. Kontua da euskaraz irakurritz gozatzen segitzea.

Euskal Herriko inauteriak dantza ikuskizuna Altsasun

Larunbatean, 17:00etan, Musika eta Dantza Eskolatik abiatuko dira herrian barna dantza saioak eskaintzeko

ALTSASU

Euskal Herriko inauterietan oinarritutako erromeria antolatuta dute Altsasuko Musika eta Dantza Eskolak eta Etorkizuna dantza taldeak, azken horren 25. urteurren ospakizunen barruan. *Euskal Herriko inauteriak* izenburuko dantza ikuskizun mugikorrean hainbat tokitako ihote doinu eta dantza plazaratuko dituzte, besteak beste, Behe Nafarroakoak, Gipuzkoakoak, Zuberoakoak eta Lapurdikoak. Eskolatik dantzariak kalez kale ikustera animatu dute.



Dantzariak kalejiran Altsasun. ARTXIBOA

"Giroa sortu eta juerga egiteko, esketxak aurretik, afaltzean eta ondoren dira"

Irurtzango Emakumeen Jardunaldiek 25 urte bete dituzte aurten. Emakumeen Eguna dela eta afaria antolatzen da urtero eta Lorena Arangoa Zabaletak azken urteetan ez du hutsik egiten. Afaldu ondoren clown ikuskizuna eskaintzen du. Hark azalduko digu zer eta nola.

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

1 Egun horretako afariko postre perfektua al zara?

Kar, kar, kar. Bai izan daiteke. Jende pila batek esaten dit niregatik joaten dela, barre egiteko. Nik ez dut uste barrea sortzen duen hori ni naizenik, baizik eta giroa: emakumezko pilo juntatzen dituzu afaltzeko, suelto dabilta, gustura.

2 Ez da urtero bera izanen, ezta?

Ez, bestela ez ziren joanen kar, kar, kar. Daukadan publikorik onena da! Denak ezagunak, denak zu ikusteko eta barre egiteko gogoz. Perfektua!

3 Lantzen duzun gaia nola aukeratzeko duzu?

Nik nahi dudana aukeratzeko dut. Urtea daramadanaren arabera, edo nire buruan zer dudana, hortaz hitz egiten dut. Beti barre egiteko gogoekin, hori bai. Nere buruaz barre egiteko ere bai.

4 Gai orokorra da edo zehatza?

Nahikoa urte daramadanez, denetariko gaiak ukitu ditut. Beti Itziar Matxainekin elkar-



Lorena Arangoa Zabaleta, Clowna . ARGAZKIJABEAXXX

lanean ari naiz. Duela hiru urte, aurretik bideo bat grabatu genuen, youtubeko tutorialen modukoa. Makilatzea edo ile-apaintzeari buruzkoa zen. Esketx hori grabatuta zegoen eta nik bitartean beste bat egiten nuen: guk ezagutzen dugun emakume bat, bera profesionala izan gabe, apaintzen eta orrazten nola moldatzen zen erakutsiz. Inoiz ez zaiola ongi gelditzen. Pasa den urtean Jardunaldian emakumezkoen zikloa landu zen eta hori landu nuen. Ispiluaren aurrean egonen banintz bezala. Ispilua publikoa zen. Denok gure burua ispilu horretan ikusten genuen.

5 Eta aurtengoa zein gaia da?

Beti gertatzen da kafea eta kopa hartu ondoren ni ateratzen naizela. Jendeak esketxa ikusi eta gero etxera berehala joaten da eta ez da girorik sortzen. Aurten pentsatu dugu lau esketx eginen ditugula: afaldu aurretik, afaltzerakoan eta ondoren. Ia giro pixka bat sortzen dugun eta juerga egiten dugun ere, beharrezkoa dela. Azkenekoan, zumba klase bat egonen da. Beraz, zapatilak eraman.

6 Gaia esketx bihurtzea beste kontu bat izanen da, ezta?

Aurten sudurrik gabe eginen dut. Clown puntutxo bat sartuko diot; odolean daramat, ezin dut ukatu. Zumba klasea ematen duen halako "explosion woman" bat nolakoa izanen litzatekeen pentsatzen dut. Haren larruan sartu, nola eginen lukeen, zein energia izanen lukeen... Hori pixka bat landu eta ateratzen dena. Ez pentsa asko lantzen dudarik, ez dudalako denborarik.

7 Beraz, ez du sortzeak denbora asko kostatzen?

Pixka bat bai. Baina kristoren giroa dagoenez, beti ere inprobisazioa hor libre da. Jendeak eskertzen duela uste dut.

8 Jendaurrean eman aurretik, norbaitek inoiz edo nonbaiten testatzen duzu?

Ahizpari, amari, lagun bat hots egiten dut. Ikus dezaten eta zer pentsatzen duten esan dezaten. Zerk funtzionatzen duen eta zer kez ikusi, eta hortik jo. Funtzionatzen duena esplotatu, eta beste pixka bat aparte utzi.

9 Eta jendeak parte hartzeko aukera dago?

Bai. Batez ere aurten. Zumba klase horretara denak apuntatzea espero dut. Eta ongi pasatzea. Gero musika jarriko dugu, estilo librea lantzeko.

10 Emanaldia txaloeekin bukatzen da, edo ondoren komentarioak datoz?

Pasa den urtean gertatu zitzaizdan. Esketxa bukatzeko makinarekin ilea larru-arras moztu nuen. Baten batek kasik zaplaztekoa eman zidan. Eta ez zen nire ama! Baina batez ere emakumezko helduak etortzen ziren eta esaten zidaten: erotuta zaudede!!! Horretan, txalo zaparrada baino ia sesioa izan nuen.

11 Egunero omen da martxoak 8. Egunero clowna da?

Egunero beharko luke martxoak 8 eta clowna, bai! Egunero arnastu beharko genuke clowna. Gure osasunerako oso-oso ona delako.

Elkarrizketa osorik:
www.guaixe.eus



*Lasai,
 zuk erabili esker alde,
 guk eskubikoa erabiliko dugu eta*

BULEGOKO MATERIALA, ESQUORRIAK, KARTELAK, PEGATINAK, PUBLIZITATEA, ALDIZKARIAK...

gk
 KOMUNIKAZIOA

948 564 275
 Foru plaza, 23-1. Altsasu
gk@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus